

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Bihotz beroak


PELLO OTXANDIANO > 11

KIKE AMONARRIZ: «Ezinbesteko jo genuen Euskaraldia egitea, euskararen gaia agendatik desagertzeko arriskua zegoelako» > 22

2020ko azaroaren 21a | XIV. urtea • 698. zenbakia
0,50 euro

GAUR8 

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



INDARKERIA MATXISTAREN PROTOKOLOAK, BABESA ETA GOGOETA

EZ DA ZAPLAZTEKO BAT EDO BORTXAKETA BAT BAKARRIK. BILERA BATEAN HITZA HARTZEKO MODUA, KIROLARI BATI HITZ EGITEKO ERA EDO LANKIDE BATI BEGIRATZEKO ERA BADA. INDARKERIA MATXISTAK TAMAINA ETA FORMA UGARI DAUZKA, HORREGATIK SARTZEN DA ZIRRIKITU GUZTJETATIK, ZIMENDUETAN DAGOELAKO. > 12 GAUR8



4



8



Beste osasun krisia: gaueko bizitza debekatuta, gizartea balbularik gabe 04

Hodeien artean munduko igogailurik altuenean 07

Ohiz kanpoko urakan sasoia Erdialdeko Amerikan 08


Indarkeria matxista eta protokoloak; babesa eraso jaso duenari, gogoeta kolektiboari 12

Ondarroako portuko murala bukatzeko laguntza 18

Elkarrizketa: Kike Amonarriz 22

Sarean 28

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



18



22

SINADURAK:

03 **Gorka Elejabarrieta:** Elkarrekin

10 **Ula Iruretagoiena Busturia:** Maskararik gabe

11 **Pello Otxandiano:** Bihotz beroak

17 **EXPRAI**

20 **Beñat Gaztelumendi:** Gabonak

21 **Joana Garmendia:** Leihorik gabeko gizartea

27 **Oihane Larretxea de la Granja:** Munstroa

27 **Koldo Sagasti:** CAF, gero eta estuago

30 **Itziar Elizondo:** Ari dena da



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Elkarrekin

ndependentzia eta sozialismoa. Irlandar Errepublikak batua. Hegoafrikar Errepublika libre eta ez-arrazista... Helburua, misio nagusia, zehaztea erraza da. Munduan zehar egon diren eta dauden nazio askapen mugimendu gehienek argi dute zertarako jaiotzen ziren. Helburu nagusira iristeko beharrezko diren tarteko helburuak erabakitzea ez da horren erraza. Erakuntza nazionalerako tresna eta independentismoa itozteko Estatuak eskaintzen dizun goxokia izan daiteke autonomia. Bide negoziatua eta adostua edo aldebakarrakoa da batzuen eta besteen arabera bide eraginkor bakarra. Nazio aitortza eta autodeterminazio eskubidearen onarpena beharrezkoak dira independentzia eskuratzeko, edo behar den bakarra independentzia gauzatzeko indar nahiko izatea da, gehiengoaren babesa, lurraldearen kontrola eta nazioarteko aitortza ziurtatzeko...

Helburu orokorrak batu egiten du, bidearen inguruko desadostasunak, banatu. Gure ingurura, urrutira eta gertuagora begiratu besterik ez dugu hori horrela dela berresteko. Katalunian gehiago dira Katalan Errepublikaren alde daudenak bide adostuaren edo aldebakarreko bidearen alde daudenak baino. Eskozian gehiago dira estatu independente bilakatzearen alde daudenak, estatu independente horren estatuburua Ingalaterrako erregina izan behar dela pentsatzen dutenak baino. Batasunik ezak, banaketak, borroka ahultzen du. Baina bidea egin beharra dago, erabakiak hartu behar dira. Nola egin aurrera zeure burua ahuldu gabe, hor dago gakoa.

Independentziarako bidean sendoen doazen estaturik gabeko herrietan ez dago, oro har, independentismoaren barnean hegemonia elektoralaren inguruko borrokarik. Eskozian independentismoaren alderdi hegemoniko bakarra SNP da, Irlandan Sinn Fein, Flandrian N-VA, Faroe uharteetan Alderdi Errepublikanoa eta abar. Ez dira alderdi independentista bakarrak baina haien nagusitasuna, gaur-gaurkoz, ez dago arriskuan. Horrelako kasuetan bidearen inguruko eztabaidak biziak eta sutsuak dira, baina egitura berdin baten barnean eztabaidatzeak eta independentismoaren barneko hegemonia borrokarik ez egoteak eztabaida horiek eta erabakiak hartzeko prozesua ere errazago (asmatu edo ez) bilakatzen ditu.

Kataluniak kontrakoa frogatu zuen. Independentismoaren barnean hegemonia lehia izugarria egonda ere posible dela elkarrekin helburu baten alde egitea. Helburu hori erreferenduma zen, eta elkarrekin, batera, lortu zuten erreferenduma antolatzea. Hortik aurrera, helburu nagusia, hots independentzia, partekatzen duten arren, bidearen inguruko desadostasunak eta independentismoaren barneko hegemonia lehia basatiak desadostasunak eta banaketak ekarri ditu. Eta horrekin batera partekatzen duten helburu nagusi hori gauzatzeko aukerak zeharo ahuldu dira.

Demokratikoak diren herrialdeetan bidea errazagoa eta linealagoa da. Gehiengoa eskuratu, negoziatu, prozesu bat adostu eta bozkatu. Estatu ez-demokratikoe-tan bidea korapilatu egiten da. Arau unibertsalak ez dute balio, edo hobeki esanda, ezin ziurtatu haiek betetzea nahikoa denik. Gurea bezalako herrietan bi ezauzgarri horiek dena baldintzatzen dute. Estatu ez-demokratikoak dauzkagu parean, gure herria eta haren autodeterminazio eskubidea sekula aitortuko ez dutenak. Independentismoaren barneko hegemonia borroka jarraituko du, ez da epe labur eta ertainean behintzat inor zeharo nagusituko. Helburu nagusiak adostu eta tarteko helburuak eztabaidatu, arerioak ondo iden-

Batasunik ezak, banaketak, borroka ahuldu egiten du. Baina bidea egin beharra dago, erabakiak hartu. Nola egin aurrera zeure burua ahuldu gabe, hor dago gakoa

tifikatuz baina etsaia nor den eta nor ez den sekula ahaztu gabe. Elkarrekin oso zaila izango da, banaturik ezinezkoa. Erabil dezagun formula berdintsu hori testuinguru zabalagoetan eta has gaitetzen praktikan jartzen. Adibidez: euskal independentista guztiok batera egingo dugu edo ez dugu egingo. Euskal Herriak estatuko gainerako estaturik gabeko herriekin batera egingo du edo ez batzuek ez besteek ez dute lortuko. Estatuko estaturik gabeko herriak Europako estaturik gabeko herriekin batera joango dira Bruselara edo ez dugu lortuko... •

EZ DA GAU GIRO

Beste osasun krisia: gaueko bizitza debekatuta, gizartea balbularik gabe

Gau giroko taberna zuloak, neonezko argi gorridun klubak, botiloi frenetikoak parkeetan, tekno festak... Koronabirusaren krisian denak seinalatu dituzte, denak kondenuatu, kutsatzaile eta arriskurik handienak balira bezala.

Gau giroaren inguruko aurreiritziak indartu al ditu gaitortasunak? Agintariek gaueko festak ilegal egin dituzte, etengabe ohartarazten digute deabru berriak direla eta birusaren hedapen inkontrolatuaren aurrean gaitortasun eta diziplina kolektiboaren falta erakusten dutela. Gauaren inguruko mamu eta madarikazio berriok zer esaten digute?

Krisiek daukaten ziurtasun bat, agian bakarrenetakoa, egoera txarrak okertu egiten dituela da. Eta hasteko esan

JENDARTEA / Mikel Zubimendi Berastegi

Etixeratze aginduak gau giroa desagerrarazi du Europan. Gaua ez da bakarrik denbora edo negozio bat. Nahasketa soziala posible egiten duen askatasun espazio bat da. Beste bat, ezberdin, izateko ahalmena ematen digun eta gizarte guztiek ezinbestekoa duten espazioa. Gau girorik gabeko etorkizuna badator, akabo. Agur eta gabon.

behar da gau giroaren ajeak, nahi eta ezinak, ez direla koronabirusarekin sortu. Ez. Gaua entretenimendua den heinean beste entretenimendu modu batzuen kontra lehiatu behar du. Nolabaiteko gerra bat da, bat denen kontrakoa, eta irabazle garbia dago: Internet. Netflixek eta Spotifyk zinema eta musika aretoak mehatxatzen dituzte. Etxez etxe jana-

ria entregatzeko zerbitzuen hazkundeak jatetxeak mehatxatzen dituen bezala. *Online* egiten diren harreman intimo eta elkartzeko gero eta ugariagoak maite-istorio potentzial baten bila tabernara joan behar ez dela esan nahi du.

Aspaldikoa da joera, beraz. Bestalde, krisi garaietan ezartzen den lehen neurria gaueko etxeratze agindua izan ohi da,

Gaua, tabuen, mugen disolbagarri, intoxikazioen eta promesa sexualen nahasketa harrigarria. GAUR8

edo beste hitz batzuetan esanda, iluntasunean mugitzeko askatasuna deuseztatzen da. Gaua ez baita denbora bat bakarrik. Espazio bat da, askatasunaren espazio bat, nahasketa soziala posible egiten duen espazioa. Beste pertsona bat, ezberdina, izateko ahalmena ematen digu, keinu edo ekintza oro baino lehen legea hausten ote gauden galdetzea eskatzen ez duen espazioa. Gainera, gizarte batek, gizarte guztiek, horrelako espazioak behar dituzte. Eta herritar guztiei zor zaie gaua gozatzeko eskubidea, mugen urraketa kontrolatuak egin ahal izateko eskubide zibila daukate.

GERTUTASUNERAKO DESIRA

Gauaren inguruan iskanbila asko dabil azken aldiotan, arrazoi askorengatik. Politikariak eta biologoak kezkatuta daude, baina baita gau giroaren industria ere, bizirik jarraitu ahal izango duen beldur. Une latzak dira gautxorientzat, gauaren industriarako, gure herrien eta hirien antolaketarako, gau giroa larri-larri dabil, baina jendearen desirak ez dira desagertu; parranda egiteko, dantzatzeko, intoxikatzeko gogoak hor diraute, beti bezain natural.

Telebistan maiz azaltzen dira gauaren ospea are iluntzen duten berriak, poliziak halako «festa ilegala» zapuztu duela, Ertzaintzak ehunka isun jarri dizkiela botiloia egiten ziharduten gazteei. Gainera, eguraldia zenbat eta hotzagoa egin, orduan eta desatseginagoa da gauean kanpoan egotea, orduan eta lasaiago daude hiriak, hilago ez esateagatik.

Inozentzia galdu du, publikotik ihesi joan da gaua, lau pareten artean ezkutatzera, belarrietan entzungailuak jarrita besaulkietan etzanda





egotera. Gau giroaren amaieraren hasiera al da? Bukaera baten lehen zantzua?

Eta hala balitz, hori al da baimendu nahi den etorkizuna? Gau giroan immunitate agiriak eskatuko dituzte? Aldez aurretik sarrerak Interneten erostea, QR kodeekin funtzionatzea, dantzalekura sartzeko hiruzpalau ate dituzten kontrolak pasatzea? Agian bai. Sikiera etorkizun bat da, ezer baino hobea agian? Ahalegin desesperatua dirudi hala ere, oraindik salbatu daitekeen apur hori salbatzekoa. Izan ere, birusak gaua kolpatu du ahulen, zaugarrien, den horretan: gizakien gertutasunerako desiran.

ESTATUA GAUZAIN

Jende askorentzat gaua sinbologia eta mitoa da, kaosa, ame-

tsen antzektokia. Ozeanoak arrainez eta itsas munstroz beteta dauden bezala, mamuz eta deabruz beteta dago gaua.

Hasiera-hasieratik, baina, erreputazio oso txarra izan du. «Eta Jainkoak argia ikusi zuen...» esaten du Kreaioaren istorioak. Erdi Aroa «iluna» izan zen eta argia ekarri zuen Ilustrazioak jarraitu zion. 1882. urtean, Sigmund Schuckert Nurenbergeko elektrikariak aurrenekoz kale argiztapen iraunkorra sortu zuen arte, gau giroa arriskutsua zen Europan, bazterrekoa, gaizkile eta bekatarien eremua.

XVIII. mendeko agirietan agintzen zenez, «argirik gabeko garaietan eta ezohiko lekuetan dabilen guztia zorrotz zaindu behar da». Paradoxa da berdintsu egiten dela oraintxe bertan ere. Eta birusaren kon-

Berlingo gau giro potentearen irudia.
GAUR8

trako osasun irizpideei jarraiki, Estatua, berriz ere, gauzain bilakatu dela.

ZIBILIZAZIO URBANOAREN OINARRI

Neonezko argi gorriak edo argirik gabeko eremuak maite dituzten gautxorientzat beren buruaz apur bat ahazteko lekua da gaua. Iluntasunen, tabuen, mugen disolbagarri, intoxicazioen eta promesa

sexualen nahasketa harrigarri bat da, artifizialki ekoiztea ia ezinezkoa den edabe oso kurosoa. Ez baitago horretarako formularik.

Gaueko taberna, festa eta klubak leku bereziak dira, apartekoak. Transzendentzia bilatzen da bertan, ihes egitea, askapen eta estasi egoeratan sartzea. Historikoki, landa eremuko eta herrietako jende ugari erakarri dute hirieta-rantz. Gau giroa XVIII. mendetik hona ikaragarri garatu da Europako hiri handi gehiengutan, eta zibilizazio urbano modernoaren fenomeno garrantzitsuenetako bat bilakatu da.

Gau giroaren sekretua neurrigabekeria eta ordenaren arteko orekan datza, arrazoizko kontrol bat duen espazio batean kontrolaren galera ahalbidetzean. Baina pandemia ba-

Krisi garaietan gobernuek beti hartzen duten lehen neurria gaueko etxeratze agindua izan ohi da, edo bestela esanda, iluntasunean mugitzeko askatasuna deuseztatzea

Gau giroaren sekretua eta etorkizuna neurrigabekeria eta ordenaren arteko orekan datza, arrazoizko kontrol bat duen espazio batean kontrolaren galera ahalbidetzean



ten erdian hori nola egiten da? Nola funtzionatzen du?

Ez da gauza bera, jakina, aste bukaera osoa irauten duen festa bat edo ordu gutxikoa. Eta logikak dio festak baimenduak ez badaude, ilegaltasunera joko dutela. Parkeetan edo lokaletan egiten diren festen kontra jotzen badu poliziak, etxeetan egingo dira, eta ikuspuntu epidemiologiko batetik ikusita zalantza sortzen da, ez dirudi soluzio hobea.

GAUA, ESPAZIO TERAPEUTIKOA

Gizarte batek balbula kontrolatuak behar-beharrezkoak ditu, ezinbestean. Munduaren ulermen ia hidrauliko hori ongi ezagutzen dute gau giroaren negozioan diharduten ardura-dun eta profesionalek. Eta beste lege unibertsal bat ere bada: festa dagoen tokian iskanbila dago, egun argiz guztia txukun eta kontrolpean dagoela pentsatu arren, gauean eztanda egin dezake, handik edo hemendik. Ondo dakite hori edozein inauteri edo euskararen

Amsterdamgo gau giroa, hiriaren osasunaren adierazgarri.
GAUR8

aldeko festa handien antolatzailleek, txosna batean gertatzen ez dena gerta daiteke, bat-batean, gaueko ordu txikietan, gaueko taberna zuloetan.

Bestalde, hiri baten osasunaren adierazgarria da. Gau giroa dagoen hirietan kultura aberastasuna egon ohi da, subkultura pila bat, beste tolerantzia edo atmosfera bat, samurtasun gehiago duena.

Eguneko 24 orduetan morkortzeko edo dantzatzeko askatasuna sakratua izan da, bai Berlinen eta baita Amsterdamen ere. Londresen, Hanburgon, Europako hiri askotan. Hori dela eta, ez dira harritze-

Munduaren ulermen hidraulikoa dirudi, baina, gizarte batek balbula kontrolatuak behar ditu, ezinbestean. Eta bada beste lege unibertsal bat ere: festa dagoen tokian iskanbila egongo da

Osasun publikoaren hobe beharrez aitortu beharko litzateke gaua errotzeko espazio bat dela, izerditzekoa, garrasi egitekoa, intoxikatzekoa, finean, espazio terapeutikoa



koak gau giroaren debekuen kontra hirirotan egin diren protestak eta bizi diren tentsioak.

Are, gau giroak ordezkari politikoak dauka, lobby oso potentea, aberastasun handia sortzen duen sektorea baita. Amsterdamek, esate baterako, «Gauaren alkatea» hautatu du, Londresek «Gauaren Tsar» bat dauka eta Berlinen, garai batean murrua izan zen bezala, gauaren bizitza frenetikoa, bere tekno festa eta arte adierazpenekin, hiriaren marka posizionamenduren oinarri nabarmena da, asteburuero antolaturiko hegaldi berezietan milaka eta milaka britainiar eta eskandinaviar erakartzen dituen fenomenoak.

Eta orain, zer? Festa egin musukoarekin? Kutsatzeen beldur zarela dantzatzuz? Ezi-

nezkoa dirudi. Gau giroaren negozioak neonezko argi gorriak alarma argi gorri egin ditu, egoera sei hilabetez luzatzen bada, argiak betirako itzaliko direla aurreratu du.

Zientzia, baina, ez da alarma horiekin larritzen. Ez du «errukirik» erakusten, eta normala ere bada. Beste logika bat dauka eta etengabe errepikatzen du koronabirusaren pandemiari aurre egiteko bi neurri direla bereziki eraginkorrak: musukoa janztea eta tabernak ixtea, bereziki drogak, rock-and-rolla eta sexua eskaintzen dituzten gau girokoak.

Horrek ez dauka soluzio errazik. Hori bai, osasun publikoaren hobe beharrez aitortu beharko litzateke gaua errotzeko espazio bat dela, izerditzekoa, garrasi egitekoa, finean, espazio terapeutikoa.



Wang ZHAO | AFP

IKUSMIRA

HODEIEN ARTEAN MUNDUKO IGOGAILURIK ALTUENEAN

Kanpoaldean dagoen munduko igogailurik altuenak 326 metro ditu. Txinako Hunan probintziako Wulingyuan herrian dago kokatua, Zhangjiajiekoko parke naturalean hain zuzen ere. Gizon-emakume guztien ondare izendatu zuen eremua Unescok. Igogailuaren puntu gorenetik ikusten den paisaia ederrean inspiratu zen

James Cameron zuzendaria 2009an "Avatar" pelikula egiteko. Bidaia 88 segundo besterik ez du irauten. 2015. urtean "Guinness" errekorren liburuan sartu zuten. «Topografiak horrelako igogailu bat jartzea ahalbidetzen du. Lehen teleferiko bat zegoen, baina ez zen oso praktikoa. Edukiera gutxi zuen eta turistek asko itxaron behar zuten edo oinez egin behar zuten hiru orduko bidea», esan du Liu Jiek, igogailua kudeatzen duen enpresako zuzendariak. Egunero, 8.000 bat pertsonak erabiltzen dute igogailua. Joan-etorriak 16 euro balio du. Pandemiaren ondorioz, hodeien artean amets egin nahi duten bisitarien kopurua nabarmen jaitsi da. Ainaro Lertxundi

EZOHIKOAREN ARRASTOA

Erdialdeko Amerikak ohiz kanpoko urakan sasoi baten ondoreak pairatu ditu

📁 INGURUMENA / Ibai Azparren

Hildakoak, desager-tuak, milaka kaltetu, baita suntsitutako etxeak, bideak eta laboreak ere. “Eta” urakanaren ondorioak dira Erdialdeko Amerikan. Kontinentearen barnean zikloi tropikalak jasateko joera handiena duen eskualde geografiko horretan, urtero fenomeno meteorologiko boteretsu horiek kalte handiak eragiten dituzte. Baina aurtengo denboraldia ezohikoa izan da.

AEBetako Gobernuak klimatologoek iragarri zuten ekaitzak Atlantikoan ekainaren 1ean hasi eta azaroaren 30era arte luzatuko zirela, eta urakanen denboraldia gogorra izango zela. «Superlatiborik gabe geratu gara denboraldi hau kalifikatzeko, markak hautsi dira zentzu guztietan. Denboraldi hori normalean amaitzen den garaian gaude, baina oraingoa ez da horrela», adierazi zuen aurreko astean Munduko Meteorologia Erakundeak ordezkariek.

Zikloi tropikalen kopuruari dagokionez, 2020ak 2005eko errekorra hautsi du eta Munduko Meteorologia Erakundeak zerrenda ofizialerako aurreikusitako izen guztiak amaitu dira. Horrela, alfabeto grekoarekin hasi dira eta horregatik da ezaguna Euskal Herrian Erdialdeko Amerika astindu duen urakana: “Eta”.

Zergatik sortzen dira hainbeste urakan Kariben? NASAREN arabera, zikloi tropikalak aire bero eta hezea erregaitzat erabiltzen duten motor erraldoiak dira. Horregatik, ekuatoretik gertu, ur epeleko ozeanoen gainean baino ez dira sortzen. Ozeanoen gaineko ai-

Ekaitzaren ostean, barerik ez. Erakunde humanitarioak eta agintariak ahalik azkarren ari ziren «Eta» urakanaren ondorioak arintzen, «lota» iritsi zenean. Munduko Meteorologia Erakundeak «superlatiborik» gabe geratu da Atlantikoko urakanen denboraldia deskribatzeko, 2005eko errekorra hautsi baititu. Hori guztia klima aldaketaren eta pandemiaren testuinguruan.



re bero eta hezea azaletik gertu altxatu eta aire presio txikiagoko eremu bat sortzen du.

Baina zergatik aurtun hainbeste? Clare Nullis Munduko Meteorologia Erakundeak Genevan duen ordezkariekin esanetan, urakanak ugartzea hiru faktorek eragin dute: «Lehenik, “El Niño” fenomeno falta da, urakanak moderatzeko joera duena, eta beste faktore handiago bat da ozeanoaren gainazaleko tenperatura, eta hori guztia klima aldaketaren garaian gertatzen ari dela nabarmendu behar da».

Ildo horretan, AEBetako National Hurricane Centerrek adierazi duenez, “Eta” urakana 2020ko Atlantikoko urakanen denboraldiko bigarren indartsuena izan da. “Iota” urakanak soilik gainditu du, azken aste honetan Erdialdeko Amerikako herrialdeak astindu dituenak. Saffir-Simpson eskalako 5. mailara iritsi da –“Eta”, aldiz, 4. mailara–.

Hala, Karibeko herrialdeak konbergentzia puntu dramatikoa batean daude, pandemia suntsitzaile baten eta etenik ez duen urakan denboraldi baten artean, urakan baten ondorioak konpondu aurretik bestea itsasertzean dagoela.

URAKANAREN ARRASTOA

“Eta” urakanak miseria utzi du eskualdean, eta 2,5 milioi pertsonari baino gehiagori eragin dio. Horrek larriagotu egin du pandemiak, desberdintasun ekonomiko handiek eta indarkeria maila handiek eragindako krisi humanitarioa, Gurtze Gorriaren Nazioarteko Federazioak ohartarazi duenez. Eskualdeko agintariek jakinarazi zuten gutxienez 261 pertsona hil direla urakanak Honduras, Nikaragua eta Guatemala jo ostean.

Hondurasen, 1,7 milioi pertsonak, biztanleen %20k, jabetzak galdu dituzte, ez dute janaririk jasotzeko aukerarik eta ur kutsatua edaten ari dira, eta, hainbat erakunde arabera, 1998an “Mitch” urakana gertatu zenetik izan den hondamendi naturalik larriena da.

Urakanak Guatemalan dozenaka hildako eragin ditu, gutxienez 150, baina desagertuak bilatzen jarraitzen dute eta galera ekonomikoak handiak dira. Alianza por la Solidaridad gobernu kanpoko erakundeak Alta Verapaz-en herrialdeko lurralderik pobreena; biztanleen %80 indigenak dira, aurrez bildutako datuen arabera, “Eta”-k 7.000 pertsonari baino gehiagori eragin dizkio kalteak, bai eta 3.000 hektarea baino gehiago suntsitu ere.

GKEak tokian bertan egiztatatu du, Cahabon eta Oxec ibaiak gainezka egin ostean, ingurumen kalteak larriagotu egin direla haien ibilguetan dauden zazpi instalazio hidroelektrikoengatik. Ura hartu ondoren, askatu egin behar izan zuten, komunitateei alde aurretik abisatu gabe, eta dozenaka herrixka eta milaka sorro urez bete eta suntsitu ziren.

Indigenak, Queqchi etniakoak, “Eta”-ren ondorioak ez ezik, agintarien laguntza falta eta axolagabekeria pairatzen ari dira. Orain arte, komunitateetako kideak ari dira laguntzen, kanpoko laguntzaren bat jaso arte. Nazioarteko lehen bidalketak El Salvador, Mexiko edo Venezuelatik iritsi dira.

Erakundearentzat, premia-koa da nazioarteko laguntza bidaltzea eremurik kaltetue-netara. Ildo horretan, NBEk bere operazio humanitarioa presatu du Erdialdeko Amerikan, “Iota” urakanak ere lu-



Ezkerreko irudian, «Iota» urakana igaro eta gero Bilwi edo Puerto Cabezas hirian (Nikaragua), emakume bat bere etxea izandakoaren gainean. Goian, herritarrak uholde arriskuko eremu bat ebakutzen Baracoa udalerrian, Cortes departamenduan, Hondurasen.
Orlando SIERRA | AFP

rraldea astindu duela kontuan hartuz.

Nikaraguan, milaka pertsona kaltetu, 1.890 etxe suntsitu eta bi hildako utzi ditu “Eta” urakanak. Era berean, gutxienez beste sei pertsona hil ziren asteartean, “Iota” urakanak eragindako eurite, uholde eta haizeteen ondorioz. Agintarien arabera, aste honetan “Iota” ekaitzak Ipar Karibeko Eskualde Autonomoa suntsitu zuen, Nikaraguako eremurik pobreena, non gehienak indigenak diren.

Munduko Meteorologia Erakundearen iritziz, hiru faktorek eragin dute urakanak ugaritzea: «El Niño» fenomenoak ez egoteak, ozeanoaren tenperaturak eta klima aldaketak

«Eta»-k 2,5 milioi pertsonari baino gehiagori eragin dio eta pandemiak eta desberdintasun ekonomikek eragindako krisia larriagotu du. Unicefen arabera, 1,2 milioi haur dira kaltetuak

Panaman, Costa Rican, Mexikon eta El Salvadorren ere kalte larriak eragin dituzte “Eta” eta “Iota” urakanek. Kuban, 74.000 pertsona inguru leku seguruetara eraman zituzten, horietatik 8.000, agintariek ezarritako aterpetxeetara. Miguel Diaz-Canel presidentek iragarri zuenez, «ez da bizitza galerarik izan, ez eta etxebizitzetan eragin nabarmenik ere». Floridan (AEB), marea ziklonikoaren eta marea erregularraren arteko konbinazioak uholdeak eragin zi-

tuen mendebaldeko kostaldean. Ekaitz haizeek sabaiak bota eta kaleak urez bete zituzten eta milaka abonatu energia elektrikorik gabe geratu ziren.

ETXERIK GABEKO HAURRAK

Save the Children eta Unicef erakunde arabera, haur asko etxerik, elikagairik eta eskolara joateko aukerarik gabe geratu dira Guatemala, Honduras eta Nikaragua herrialdeetan.

Elikagaiak, covid-19ren prebentziorako kitak, mantak, aterpeetarako plastikoa eta higie-ne pertsonaleko kitak banatzen ari da Save the Children gobernu kanpoko erakundea, baina, jakina, hori ez da nahikoa, inondik inora. Hori dela eta, urakanen eta pandemiaren ondorioak arintzeko laguntza humanitaria eskatu dio Estatu espainolarari. Erakundeak uste du, azkar jokatu ezean, kalteak suntsigarriak izan daitezkeela haur eta familiarik ahulentzat.



Ula Iruretagoiena Busturia - @ulissima5
Arkitektoa

Maskararik gabe

Pandemiak garai mugitua ekarri du gurera. Erasanda gaude. Denoi eta aldi berean gertatzen ari zaiguna da, maila ezberdinetan eta egoera aniztasun oparoan. Batzuek egoeraren eragin/erasanari hitzak jartzeko erraztasuna izango dute, beste batzuk deserosotasuna sentitzen arituko dira eta besteak ukapenean instalaturik egongo dira. Bizi ditugun mugak eta baldintzak dekretu batean jasoak eta deskribatuak direlako, kexu gara, gure bizimodua moldatzera beharturik garelako, egoera ulertzen/digeritzen/integratzen ari garen istant berean. Postkolonizazioko pentsamenduan harrapatu dagoen lagun bati entzun nion, pandemian erdi-goit mailako klase sozialari tokatu zaiola behe mailako klase sozialak betidanik eta modu betikotuan bizi izan duen egoera uzkurtua sufritzea, eta orduan hasten da sufrimendua oihartzuna izaten. Hau da, gaineko egituren bizitza-estutzea gauza zaharra dela, baina lehen pertsonan pairatzen dugun arte, besteen egoera kaltetua oharkabean pasatzen zaigula, gure ziliborraren zentroan itsuturik bizi garelako. Bitxoak goi egiturak maskararik gabe jarri dituenean, ahoa estalita ere, begiak zabaltzeko abagunea dugu denok.

Espazioaren arkitekturan dihardugunontzat, erasan maila zabal horrek ere badu esangura berezi bat, espazioaren hausnarketa diziplinatik kalera atera delako. Guztion ahotan dago distantzia metrikoa, gelaren aireztapen gurutzatua, kalearen aire-arnasketa garbiaren balioa, herriko paseo bideak landa eremuarekin lotzearen garrantzia... Egunerokoaren parametro espaziala mugaturik dugunean, bizi-

modu eta gorputzetan espazioaren kalitateak duen eraginak lehen lerrora salto egin du. Arkitekturaren diziplinan ezagunak eta zaharrak diren beharrezanek une honetan sozializazio maila zabala lortu dute, eta hori funtsezko aurrerapausoa da espazio eraldaketarako. Espazio eskalako egituretan ere bai, maskararen erorketa gertatzen ari baita, eta zirrikitu bat ireki daiteke.

Mugikortasuna eta ohiko sozializazio guneak mugatzearekin batera, bilkura espazioaren birdefinizioa etorri da. Mahai baten inguruko solasaldi asko pantaila espaziora mugitu dira, lagunaren aurpegiak lauki sareetan sartu ditugu, klikek eta esc botoiak harreman espazioak irekitzen eta ixten dizkigute gure begien aurrean. Eta une horretan bertan ohartzen gara, segur aski, zenbateraino desio dugun espazioa, hitzak eta gertaerak konpartitzea maskararen atzetik, izan pantailazkoa edo telazkoa, ez delako gauza berdina. Edo lan bilera eta otorduko mahaiaren artean trantsiturako espaziorik ez dagoenean, ia-ia ipurdia aulkitik altxa gabe bi ekintza zeharo ezberdinak egiteko sekuentzia espaziala gauzatzen ez dugunean, bitarte espazioaren desioa sentituko dugu gorputzean.

Espazioaren eta denboraren esperientzia aberatsa izateak egunerokoa osatzen duela berresten ditzagute esperientzia horietan, eta hori horrela izan ezean, bizitza lapurtzen ari zaizkigu. Espazioaren mugapen eta murrizketa hori ez da osasungarria, inola ere; aldarte pisutsua eta nekea eragiten digu, eta ez du pentsatzeko tarterik uzten. Sor-tu ditzagun tarte espazioak, seguruak izateaz gain, akziorako gune izan daitezten. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

{ asteari zeharka begira } Pello Otxandiano

Bihotz beroak

Ezkortasunean ez itozteko ahalegina aldarrikatu nuen orriotan idatzi nuen azken aldian. Pandemia okertzeak neurri murriztaile berriak ekarri ditu harrezkero eta eztabaida bizia sortu da ezkerreko sektoreetan.

Sektore batzuek neurri sanitarioen aurrean matxinatu beharra iradoki dute. Eskubide eta askatasunen ezabaketa izugarri baten aurrean gaudela. Orwellen distopia gauzatua ikusten dute kontrol sozialerako dispositibotzat dituzten gobernu dekretuetan, sistemaren inboluzio autoritarioan jauzi kualitatibo bat. Sekulako terrenoa galtzen ari da ezkerreko sektore horien aburuz, otzan irensten ari da sistemaren ofentsiba beldurgarria. Eta horren guztiaren aurrean ezinbestekoa da haserre adierazpen biolento bat, euste-horma bat; sistemaren aurkako bulkadari bide ematea, neurri murriztaileen aurrean errebelatzea.

Erantzunkidetasunaren eta elkar zaintzaren banderari eutsi dio ezker independentistak. Beraien zabarkeriak sortutako zulo tragikoa ez dugu guk handituko, esanez; beraien arduragabekeriari gure ardura kontrajarriko diogu. Ehunka herrikideren bizitzak salbatu nahi baditugu, neurri murriztaileak hartzea beste aukerarik ez dago puntu honetara iritsita. Eta noski, osasun neurri murriztaileak baliabide sozioekonomiko konpentsatzaile sendoen eskutik behar dute.

Betiko legez, dena ez da zuria ala beltza (eta jakina da pentsamendu politikorik aberatsena elkarguneetan dagoela, grisaren tonalitate ezberdinetan, nahiz orekak ez diren errazak astean laurogei lagundik gora hiltzen direnean), eta neurri batzuen zentzua ere kuestionatu da. Botere publikoen jardunak eskatzen duen ezinbesteko gardentasun eta argitasunean jarri da azpimarra, eraginkortasun frogaturik ez duten hainbat erabaki ezin onartuzkoak direla esan da, zer esanik ez erabakiok hartzeko moduak, eta halakoen aurrean jarrera kritikoa ezinbestekoa zaigula.

Ezkortasunaren aurkako ahaleginean tematuko naiz gaurkoan ere. Aipatu hiru posizioetako lehena, "erresistentzialista" zelanbait izendatzearen, oso ohikoa

baita ezkerreko diskurtsoetan. Pandemiari aurre egiteko neurriei buruzko eztabaidan modu beligerantean agertzen dena, baina beste hainbatetan, lausoago bada ere, presente dagoena. Adibidez: «Europa krisi ekonomikoari ematen ari zaion erantzuna 2008koari eman zion berbera da; *Green Deal*-a neoliberalismoaren beste aurpegi bat baino ez da».

Uste dut ezkerrek galdera sinple bat pausatu behar liokeela bere buruari: Nola daiteke kapitalismoa muturreko antagonismoak sortzen ari den garai historikoan, kolapso zibilizatorioa aukera guztiz erreala denean, alternatiba sistemiko baten gutxieneko trazarik izango duen hautu berdinzale bat gorpuzteko gai ez izatea? Eta ez bada orain, noiz?

Gora bihotzak, bai, baina bihotz beroez gain buru hotzak ere behar ditugu. Zein da koiuntura analisia? Non gaude? Boliviara itzuli berri den Alvaro Garcia Linerak berriki esan duenez, hegemonia neoliberalak auzitan dago azken 40 urteetan ez bezala: etengabeko hazkundearen mantra, estatuak ekonomian esku hartu behar ez duela, zergak jaitsi eta zerbitzu publikoak pribatizatzea dela eraginkorra, zer produzitu eta zer kontsumitzen dugun inongo planifikazio publikorik gabe ebatzi behar dela eta abar. Datozen urteetan, krisi zibilizatorioaren testuinguru historiko arriskutsuan, zentzu komun post-neoliberal bat heda daiteke Mendebaldeko gizarteetan. Irekidura bat aspaldi ez bezalako, erregresio handi bati bide eman diezaiokena, bai, baina tamaina bereko aurrerabide berdinzaleari ere bai. Eta ez, ez gaude egoera preintsurrekzional batean.

Hortxe ezker independentistaren aukerak eta erantzukizun historikoa. Krisi aro hau baliatu behar du independentismoak jauzi kualitatibo baterako, bai. Eta horrek, batez ere, botere estrategia bat eskatzen du, estatugintza botere metaketa prozesu bat baita funtsean. Prozesu konplexu bat erresistentzialismotik batere ez duena. Eta hala pandemiaren kudeaketak nola Europako berreraikuntza funtsek, *Green Deal*-ak zein Espainiako politikak, borroka zelaiak guztiak, leporaino lokaztera behartzen gaituzte, tentsioak kudeatzera. •

Gora bihotzak, bai, baina bihotz beroez gain buru hotzak ere behar ditugu. Zein da koiuntura analisia? Non gaude?

INDARKERIA MATXISTA ETA PROTOKOLOAK

Babesa eraso jaso duenari, gogoetarako bidea kolektiboari

📁 JENDARTEA / Amagoia Mujika Telleria

Gero eta udaletxe, festa gunee, elkarte, enpresa, kirol elkarte, mugimendu politiko eta kolektibo gehiagotan dituzte indarkeria matxistaren kontrako protokoloak. Kasu baten aurrean eman beharreko pausoak jasotzen dituen tresna da. Baina hori baino gehiago ere bada; kontzientzia hartzeko eta gogoetarako urrats ausart eta konplexua. Eremu guztiak indarkeria matxistak lika-lika eginda badaude, ez ote da izango horren gainean eraikiak gaudela?

Ikerketa eta dokumentazio zentro feminista da Emagin eta «pentsamendu kritiko feminista» sustatzea da bere helburu nagusia, bertako Idoia Arraiza Zabalegik nabarmendu duenez. Azken helburua aldaketa soziala izanik, horretara heltzeko bide, bidegurutze eta bidezidor ugari ibiltzen dituzte Emaginek. Formazioa, ikerketa, proiektuak, aholkularitza, ekoizpenak, komunikazioa...

Arlo askotatik egiten dute lan. Indarkeria matxista ertz ugariatik astintzen saiatzen dira eta protokoloak egiteko aholkularitza eta laguntza eskaintzen diete beren atea jotzen dutenei. «Alde batetik jaien eremua dago. Azken urteotan sekulako lana egin da eta protokolo asko sortu dira. Txosna guneeak, udalak, tabernariak... eragile asko ari dira koordinatzen protokolo horien inguruan. Jaialdi batzuek ere protokolo zehatzak sortu dituzte.

Adibidez, Hatortxu Rockek. Beste esparru bat erakundee-na da eta hor ere lantzen ari dira protokoloak. Eragile desberdinen jarduna eta koordinazioa lantzen duten tresnak dira, erakundeen artekoak. Eskualde batean herri bat baino gehiago egon daitezke eta herri bakoitzak bere zerbitzuak dauzka. Izan ere, eraso baten aurrean arreta ertz desberdinetatik eskain daiteke; osasun etxeetatik, gizarte zerbitzuetatik, poliziaren arlotik, udalaren aldetik... Eragile asko daude inplikatur, baina askotan haien arteko koordinazioa ez da ona. Hori hobetzeko protokoloak egiten ari dira. Beste eremu bat dira elkarteak, erakundeak, enpresak, kolektiboak eta abar. Gu arlo guztietan aritzen gara aholkularitza eskaintzen», azaldu du Idoia Arraizak.

Indarkeria matxistaren kontrako protokoloak ez dira panazea, baina garrantzitsuak di-

ra. «Oso garrantzitsua da emakume batek jakitea eraso bat pairatuz gero, baliabideak dituela, erabil ditzakeela eta laguntza eska dezakeela. Gero berak erabakiko du erabili edo ez, baina jakin behar du baduela nora jo», esan du Arraizak. Baduela nora jo eta jasoko duten pertsona horiek badakitel zertan ari diren. «Askotan koordinazio falta horren ondorioz, emakumearen konfidentzialtasuna kolokan jar daiteke. Eta hori bermatzea oso garrantzitsua da. Egia da, hala ere, konfidentzialtasun horrek berak batzuetan zaildu egiten dituela gauzak. Egoera oso zaila da eta gehiago herri txikietan, jendeak elkar gehiago ezagutzen duelako».

FORMAKUNTZA, GARRANTZITSUA

Indarkeria matxistaren kontrako protokolo bat egiteko orduan, formakuntza garrantzitsua da. Tresna hori martxan jarri behar dutenak trebatu egin behar dira. «Formakuntza ematen dugu ikusteko indarkeria ez dela bakarrik bortxaketa bat edo sexu eraso bat. Horiek icebergaren punta baino ez dira, baina horien azpian mikromatxismo ugari daude; erasoak, jazarpenak, presioak... Mikromatxismo horiek egunerokoan ikus daitezke; bilertan nork hartzen duen gehiago hitza, nork mozten duen bestearen hitza... Gu saiatzen gara begirada zabaltzen eta ikusarazten matxismoa eta jarrera matxistak guztiok ditugula, baita gure elkarte, enpresa, komunitateetan ere. Hortik abiatuta erabakiko dugu protokoloak zer egoera mota hartuko dituen kontuan. Baina lehendabizi beharrezkoa da ikustea indarkeria matxista

egiturazkoa dela, ez direla lau kasu isolatu».

Protokolo bat egitea ariketa sakona eta ausarta da. «Haste-ko, komunitate horretako kide guztien inplikazioa eskatzen du. Guk beti saio parte hartzaileak egiten ditugu, protokolo horrek babes kolektiboa behar duelako. Garrantzitsua da guztiek onartzea eta jakitea zer sartzen den protokoloan. Horrez gain, gauza asko mugitzen dira; gizonen pribilegioen inguruko hausnarketa, norberak egiten duenari buruzkoa... Azkenik, protokoloak egiteko gure filosofiaren barruan ulertzen dugu eraso bat ez dela erasotzailearen eta eraso jaso duenaren arteko arazo bat. Eraso hori kolektibo baten barruan gertatu da eta komunitate osoak ardura du. Botere harremanek asko markatzen gaituzte eta baita komunitate batean ere. Horiek ahalbidetzen dute indarkeria matxista. Guk uste dugu ardurako kolektiboa dela eta kolektibo horrek baliabideak jarri behar dituela».

Indarkeria matxistaren kontrako protokoloak garrantzitsuak dira. «Batetik, prozesu parte hartzaile horren bitartez gaiari buruz hitz egiten da. Normalean lantzen ez diren gaiez hitz egiten dute komunitate bateko kideek eta hori bera aberatsa da. Horrez gain, emakumeoi ziurtasun gehiago ematen digu salaketa jartzeko orduan. Oso zaila da salaketa jartzea, eta are zailagoa erasotzailea ezaguna denean. Salaketa jarriz gero babesa izango dugula jakitea garrantzitsua da. Era berean, erasotzaileari ere mugak jartzen zaizkio. Agian bi aldiz pentsatuko du egin aurretik».




Idoia Arraiza Zabalegi, Emagin Ikerketa eta Dokumentazio Zentro Feministako kidea. Idoia ZABALETA | FOKU

IGOR ETXEBERRIA DIEZ

BERA BERA-KO KUDEATZAILEA

«Komentario eta jarrera desegokiak azkar identifikatu behar dira»



Andoni CANELLADA | FOKU

Bera Bera kirol elkartearen 2017. urtetik daukate jazarpenaren kontrako protokoloa indarrean. Kirolariak, bertako langileak, une horretan bertan lanean ari direnak... denak babestea da helburua.

Nondik nora sortu zen protokoloa lantzeko ideia?

Mila kirolari inguruko elkarteak da Bera Bera, jende asko mugitzen da bertan eta garrantzitsua da arauak garbi izatea. Kirol elkarte bezala –eta gure kasuan emakumeen eskubaloia da erreferente nagusia– berdintasunaren eta kontziliazioaren bidean neurriak hartzeko lanketa egiten hasi ginen. Eta ikusi genuen emakumeen eskubaloi taldeak daukan ikusgarritasuna baliatu genezakeela zenbait

aldarrikapen egiteko. Batetik, kanpora begira emakume kirolari profesionalek topatu ohi dituzten arazoak azaleratu nahi genituen. Eta, bestetik, barrura begira, protokolo bat lantzea erabaki genuen, jazarpen kasu baten aurrean nola jokatu zehazteko.

Protokoloa egitea bera hausnarketarako bidea izan daiteke.

Kirol elkarte bezala, kirolaren balioak eta etika dira gure ardura nagusia. Balio horien parte dira noski elkarrekiko errespetua, jazarpenik ez egotea, tratu ona ematea... Guretzat hausnarketa hori kirol emaitzen gaineratik dago.

Emakumeak gehiengo diren kirol inguruneetan ohikoagoak dira horrelako**hausnarketak, lehiatik apartekoak.**

Segur aski bai. Guk mila kirolari inguru ditugu elkartearen, zortzi urtetik hasita, eta %60 baino gehiago emakumezkoak dira. Balioen eta elkarrekiko errespetuaren inguruan sentsibilizazio handia dago gurean. Gure filosofiak ere eragiten du; ardura berezia daukagu kirolaren eta harremanen inguruko balioekin.

2017an onartu zenuten protokoloa. Bera Berako parte diren kirolari guztiek daukate horren berri.

Bai. Protokoloa gure web orrialdean daukagu eskura eta, horrez gain, jazarpen kasu baten aurrean zer egin laburtzen duten grafikoak ere baditugu. Lau urrats

errazetan, kirolariei eta familiei azaltzen zaie zer egin behar duten jazarpen kasu baten aurrean, norengana jo dezaket. Normalean kirolari berriak gerturazten direnean elkartera, bete behar dituzten inprimakiekin batera, protokoloaren berri ere ematen diegu. Saiatzen gara garbi adierazten horrelako egoeraren bat ematen bada, ate bat baino gehiago dauzkatela eskura, haientzat erosoena dena jo dezaten. Entrenatzailearengana gerturatu daitezke, beren kirol arloko –bederatzi arlo ditugu– arduradunarekin harremanetan jar daitezke edo zuzenean nirekin, kirol elkarteko arduradun bezala.

Bera Berara iristen diren familia askorentzat ezustekoa izango da.

Bai, eta iritsi zaizkigu horren inguruko iritziak, protokoloarena oso egokia iruditzen zaiela esanez. Eta beste zenbait kirol elkartetako gurasoak ere jarri dira gurekin harremanetan, jakin-minez, nola egin dugun galdetuz... Askotan galdetzen digute ea derrigorrezkoa den horrelako protokolo bat izatea kirol elkarteetan. Derrigorrezkoa ez da, baina beharrezkoa bai.

Elkartearentzat garrantzitsua da protokoloa izatea?

Lasaitasun bat ematen digu. Jazarpen kasu bat gertatuz gero, zein pauso eman behar diren garbi edukitzea garrantzitsua da, bai biktimarentzat eta baita elkartearentzat ere. Protokoloa egiteko elkartearen barruan lantalde bat sortu genuen eta kirol arlo desberdinak elkarlanean aritu ginen. Lanketa hori oso interesgarria da, gaia mahai gainean jartzen delako eta horri buruz hausnartu egiten delako. Lasaiago geratu

ginen. Onena da protokoloa ez aktibatu behar izatea, jazarpen kasurik ez gertatzea, baina gertatzen bada, badaukagu tresna bat horri aurre egiteko. Etxeko lanak eginak ditugu. Gero, gertatzen bada, ez da samurra izango, latza eta desatsegina izango da, baina gutxienez baditugu tresnak prestatuta eta horrek lasaitasuna ematen digu.

Kirola eremu lehiakorra izan ohi da, erasokorra askotan. Egoera bortitz asko normaltzat hartzen dira.

Bai, eta horri buruz asko hausnartu genuen protokoloa egiteko orduan. Komentario, jarrera eta egoera desegokiak gertatzen direnean azkar identifikatu behar dira eta garrantzia eman, ez hartu arinkeriatzat. Protokoloa landu dugun lantaldean garbi dugu gauza horiekin adi egon behar dugula. Batzuetan, gauza txikiak edo arinak direlakoan, ez dira kontuan hartzen eta dagoeneko arazoa oso handia denean edo berandu denean esku hartzen da. Errotik lan egin behar da. Adi egotea da gure ardura.

Okerrenean jarrita, jazarpen bat gertatuz gero, zein dira jarraitu beharreko pausoak?

Lehendabizi ikerketa edo balorazio prozesu bat jartzen da martxan. Gertatu dena jasotzen da. Kirol arloko arduradunak, nik neuk eta beste arloetako pertsona batek edo bik osatuko genuke lantaldea. Protokoloan zehaztuta dago nola jaso informazioa; azkartasuna, konfidentzialtasuna, errespetuzko tratua, babes...

Behin informazioa jasota, kasuaren arabera, elkartearen barruan konponduko genuke edo kanpoko laguntza eskatu. Kasu bakoitzean aztertu behar da zer egin.

MAITE BARREÑA OCEJA ETA AIORA EPELDE AGIRRE

LAB, SORTU ETA ERNAI-REN BARNE PROTOKOLOAREN LANTALDEKO KIDEAK

«Komunitate mailako ariketa bat proposatu dugu, erreparatzailea eta koherentea izan nahi duen protokoloa»

Maite Barreña Oceja LABeko Idazkaritza Feministako kidea da eta Aiora Epelde Agirre Sortuko Plan Feministaren arduraduna. LABek, Sortuk eta Ernaik duela hilabete batzuk aurkeztu zuten Indarkeria matxistaren kasuen kudeaketarako barne protokoloa. Eraso zehatzei erantzuna ematek harago, indarkeria matxistaren sustraiak eusten dituen lurra iraultzeko proposamena da.

Protokolo berritua aurkeztu zenuten uztailean.

[Aiora Epelde] Ezker Abertzaleak indarkeria sexistari aurre egiteko protokoloa duela hogeitau urte sortu zuen eta ordutik ari gara gaia lantzen. Gurean ere kasuak gertatzen ari zirela identifikatu genuelako eta horren aurrean tresna kolektibo bat behar genuela ulertu genuelako sortu zen. Orduko protokoloa eta oraingoa ez dira parekoak. Indarkeria sexistari begiratzetik indarkeria matxistari begiratzera pasa da eta tratatzeko modua, ikuskera eta ulerkera aldatu dira. Paradigma aldaketa bati buruz ari gara. Eta hori ez da kasualitatea. Hogeitau urteko ibilbidean mugimendu feministak ibilbidea egin du justizia feminista erreparatzailearen bidetik eta horrek gu ere busti gaitu. Ezagutza horrek eraman gaitu indarkeria matxistari beste begirada batetik begiratzera eta indarkeria matxistari beste ertz batzuetatik heltzera.

Hausnarketa zabal bat hautematen da.

[Aiora Epelde] Tresna hau sortzeko prozesua urte eta erdi ingurukoa izan da eta prozesu horretan parte hartu dute –ezker abertzaleko emakumeak izateaz harago– hainbat adituk eta arituk. Hartu-emana iraunkorra izan da eta elkarlana bizia. Elkarrekin eta modu kolektiboan osatu dugun tresna bat izan da.

Mugimendu politiko gisa protokolo bat egin dugu eta protokoloa kasu bat gertatzen denean aktibatzen da. Baina, aldi berean, plan feminista integral baten barnean kokatzen da eta sortu dugun tresna hori geure buruak eraldatzeko, trebatzeko eta hezteko erabili nahiko genuke. Ez da soilik kasu zehatzen aurrean erabili nahi dugun tresna bat, baizik eta gure filosofian, egunerokotasunean eta egiteko moduetan eragin zuzena izan beharko lukeen protokolo baten aurrean gaude.

Berez, zein da protokolo baten helburua?

[Maite Barreña] Protokolo zeri deitzen diogun horren arabera. Orain arte protokolo esaten genion kontu zehatz bati erantzuteko koordinazio tresna bati. Guk honekin bestelako ariketa bat egin nahi izan dugu; ez da bakarrik egoera konkretu bati erantzuteko tresna bat. Hori ere bada, baina hori baino gehiago da. Urteotan egin dugun ibilbideari begira ikasi dugu zer nolako esku hartzeak egin izan diren, nondik, zein akats gertatu diren, zergatik genituen tresnak batzuetan baliagarriak ziren eta beste batzuetan ez... Batzuetan protokoloek indarkeriaren adierazpen bortitz batzuei

erantzuten diete, baina ez diete erreparatzen indarkeria matxista horren baitan dauden beste adierazpen txikiagoei. Eta horiek dira indarkeria bortitzagoak sostengatzen, eusten, dituztenak. Indarkeria adierazpen txikiago horiek existitzen direlako gertatzen dira kasu bortitzagoak.

Azterketa orokor bat egin nahi izan dugu: zeintzuk dira gure komunitatean gertatzen diren erasoak? Eraso horiek gertatzen direnean, horiei bakarrik erreparatu behar diegu edo klima orokorra aztertu behar dugu? Ariketa oso zorrotza eta integrala egin dugu. Jendarte patriarkal batean bizi gara eta gu ez gaude horretatik aparte. Hortik abiatuta, protokoloan indarkeria matxistari orokortasunean eusteko proposamena egin dugu.

Komunitate mailako ariketa bat proposatu dugu, indarkeria kasu bat gertatzen denean, bestelako gorputz batekin eta koherentzia batekin aurre egiteko modua izateko. Arazo indibidual bat izatetik arazo kolektibo bat izatera pasatzen da eta horren aurrean bakoitzak erantzukizun desberdina dauka. Egin duenak erantzukizun bat dauka, baina gainontzekoek, kolektiboaren parte garen neurrian, ez diogu bizkarra emango egoera horri. Aurrez aurre begiratu eta nola esku hartu erabakiko dugu. Erreparatzailea eta koherentea izan nahi duen protokoloa da.

Mugimendu osoari eragiten dion ariketa da, beraz.

[Aiora Epelde] Sortu dugun tresna

horrek eskatzen du mugimendu politikoa filosofia eta koherentzia horiekin bustitzea. Horretarako ariketa kolektiboa, trebakuntza eta gure buruen azterketa beharrezkoak dira. Indarkeria matxista sistemikoa dela onartuta, askotan erraza egiten zaigu indarkeria hori kanpoan identifikatzea. Baina, protokolo berrituarekin, pauso bat eman eta geure baitan ematen den indarkeria identifikatzera goaz. Horretarako kontzientziazioa eta trebakuntza beharrezkoak dira eta horretan ari gara. Badakigu denbora beharko dugula; baina borondatea, determinazioa eta bide bat egiteko beharra ere badaude.


Protokoloaren barnean kolektibitateak sekulako garrantzia hartzen du ardura geure egin dugulako. Hori da protokolo honen oinarria; pertsona bati gertatzen zaiona ez da bere ardura bakarrik, guztion ardura baizik. Horren erreparazioa eta eraldaketa guztioi dagokigu.

Ardura kolektiboaren ideiak pisua hartzen du.

[Maite Barreña] Askotan erakundeetako ordezkariak edo berdintasun arloan ardurak dituztenek indarkeria matxista «jendartearen gaitza» dela esaten dute, berez eta ez dakit non sortua eta zirimiria bezala gainera erortzen zaiguna balitz bezala. Diagnosi hori okerra da, gezurtia eta gainera erantzukizuna banakoen gainean jartzen du. Indarkeria matxista ez da gaitz bat, sistema honen ondorioa baizik. Eta horrekin amaituko dugu

diagnostiko zuzen bat egin eta sistema hori guztia eraldatzen baldin badugu. Indarkeria matxista kapitalismoarekin, indibidualismoarekin eta patriarkatuarekin lotuta dago. Gure jendarte kapitalista, indibiduala eta patriarkala den heinean, indarkeria matxista egongo da. Eta ez da gaitz bat izango, sistemaren parte bat baizik. Begiratu diezaiogun indarkeria matxistari aurrez aurre, hausnartu dezagun zerk eta nola sortzen duen indarkeria hori, har ditzagun erantzukizunak eta sor ditzagun irtenbide errealak.

Guk badakigu ez dugula hori desagerraraziko ez etzi eta ez



etzidamu, baina horretarako bideak jarriko ditugu, berriak asmatuko ditugu eta irtenbide erantzunkideak proposatuko ditugu. Ez dezagun bizi indarkeria matxista jasan behar dugun zama bat bezala, baizik eta topatu ditzagun irtenbideak aurrez aurre begiratu eta hori desagerrarazteko. Hori da protokoloan egiten dugun proposamena.

Protokoloak proposatzen duen ertz horretatik, zer egin indarkeria matxistaren kasu baten aurrean?

[Maite Barreña] Normalean bi posiziook talka egiten dute. Batetik, posizio zigortzailea. Badirudi zenbat eta zigor handiagoa izan jendartearen lasaiago geratzen dela eta arazoa konpondu egiten dela. Guk gehiago sinesten dugu prozesu erreparatzaileetan. Feminista asko eta asko ari gara justizia feministaren inguruan hausnartzen, arakatzen eta irtenbideak proposatzen. Erreprezioaren kultura bortitza

daukagu guk eta garbi daukagu kartzelak ez duela ezer konpontzen. Era berean, zigor arinagoek ere ez dute balio. Bestelako irtenbide batzuk proposatu behar ditugu: deseraikitzea. Eraikitako gizontasun mota hori deseraiki egin behar da. Hori da gure apustua.

Dena dela, sortu duten minak ondorioak dauzka eta horiek erreparatzeko bideak topatu behar dira. Bide horiek anitzak izan daitezke; indibidualak, kolektiboak, eraso jasan duen emakumeak egokitzen jotzen dituenak... Ez dago bide bakarrik.

Erasoa gertatu eta prozesu bat abiatzen da. Lehen pausoa emakume horren hitza edota sententziak sinestea da. Horiek jaso eta erreparazioaren bidean lagundu behar zaio. Eta horretarako beharrezkoak diren baliabide erreparatzaileak eta hezigarriak erabili behar dira. Kasu batzuetan babes neurriak edo kautelazkoak ere hartu behar dira. Horrek ez du esan nahi denok lagunak izan behar

«Azterketa orokor bat egin nahi izan dugu: zeintzuk dira gure komunitatean gertatzen diren erasoak? Erasorik gertatzen direnean, horiei bakarrik erreparatu behar diegu edo klima orokorra aztertu behar dugu? Ariketa oso zorrotza eta integrala egin dugu»

«Protokoloaren barnean kolektibitateak sekulako garrantzia hartzen du ardura geure egin dugulako. Hori da protokolo horren oinarria; pertsona bati gertatzen zaiona ez da bere ardura bakarrik, guztion ardura baizik. Horren erreparazioa eta eraldaketa guztioi dagokigu»

dugunik, gertatu denari garrantzia kendu behar diogunik... Komunitate bat gara eta bertan jarraitzeko norbere erantzukizunetik abiatu behar dugu egoera hobeto batera heltzeko.

Hala ere, garbi utzi behar dugu protokoloa gure komunitatean eskaintzen den aukera bat dela. Horrek ez du esan nahi eraso jasan duenak ez duela beste bide batzuk hartzeko aukera. Era berean, konturatzen gara egiten dugun proposamena berria dela eta trantsizio une batean gaudela, egunerokotasunean kudeatzen ditugun egoera horiekin ikasten. Badakigu egoera batzuk kudeatzeko gaitasuna dugula, baina badira beste egoera batzuk apartekoak direnak. Zenbait jokoera dituzten pertsonak ez dute tokirik gure komunitatean. Hiltzerainoko erasoak, adin txikikoen kontrakoak, indarkeria bortitzeko ekintzak... Horrelakoen aurrean modu garbian esaten dugu pertsona horiek ez dutela lekurik gure komunitatean. Horrek ez du esan laguntzarik behar ez dutenik, baina ez gure komunitatearen barnean.

[Aiora Epelde] Jakitun gara izugarriko ariketa daukagula egiteko. Gure baitako indarkeria identifikatzeko apustua da, eta horrekin batera parean jarri eta horri aurre egiteko apustua.

Emakumeak politikaren lehen lerroa gehiago heltzen ari dira azken urteotan. Ertz askotatik eraso egiten diete.

[Maite Barreña] Badirudi emakumeak "gonbidatu" egiten direla erabaki guneetara; «etor zaitez gureak diren esparruetara, gure tamainan, gure begietatik eta gure modura egindako espazio androzentristetara, baina orain arte egiten dena egiteko, ez ezer aldatzeko». Eta hor sortzen da talka. Gordetzen ari dira emakumeentzat aulki batzuk, baina ez sistema

eraldatuko duten gauzak egiteko, gizonak egingo lituzketen gauza berak egiteko baizik. Bestelako proposamenak egiten dituenen, eraso egiten zaio emakume horri ez diolako erantzuten normatibitate horri. Berdintasun uste faltsu bat dago.

Gonbidapen modukoa denez, arauak apurtzen ditugunean emakumeok erasoak jasaten ditugu. Plenoan haurrari bularra ematen diozulako edo ez diozulako ematen. Ama zaintzeko baimena hartzen duzulako edo ama zaintzeko baimenik hartzen ez duzulako. Horregatik emakumeak beti izango gara ama txarrak, alaba txarrak, politikari txarrak. Familia arduren arabera neurtzen gaituztelako.

Gu ez gara gizon txanpiñoiak eta politikara gonbidatzen gaituzte gizon txanpiñoien parekoak izateko. Baina gu interkonektatuta gauden pertsonak gara. Benetako galdera da: emakumeek politikan parte hartzea zer da?

Gure mugimenduaren gogoeta hortik doa. Emakumeek asko parte hartu izan dugu, baina gizonen era mimetiko batean. Parekidetasunean aritzeko eta gauza desberdinak egiteko etorri gara politikara emakumeak, ba goazen egitera.

Eta, bigarrenik, gizonak subjektu pribilegiatuak dira. Denak. Pribilegio horiei uko egitea oso zaila da eta ariketa kontziente bat eskatzen du. Gurekin mugimendua partekatzen duten gizonen ariketa hori egiteko gonbita egiten diegu: lehenengo pribilegio horiek dituzulako kontzientzia hartu, pribilegio horiek erabili egiten dituzula konturatu eta, azkenik, pribilegio horiei uko egiten ikasi, guztion eskubideen alde egiteko. Indarkeriak aldaera hori du. Pribilegiotun pertsonak pribilegiotik ez dituztenekin partekatzen dutenean espazioa, era batera edo bestera indarkeria ematen da.



Juan Carlos RUIZ | FOKU



Marisol RAMIREZ | FOKU

ISABEL ABELLA

ABELLA LEGAL TALDEKO ABOKATUA

«Garrantzitsua da enpresak indarkeriarik gabeko espazio bat sustatzea»

Abella Legal 2006an sortutako abokatu bulegoa eta berdintasunerako aholkularitza da. Hiru lan arlotan aritzen dira nagusiki: aholkularitza juridikoa eta berdintasuneko; epaitegi eta entzutebietako defentsa eta auzi estrategikoa; eta prestakuntza eta dibulgazioa. Enpresa arloan protokoloak lantzen ere aritzen dira.

Legeak zer esaten du lan munduko indarkeriari buruz?

Enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera berdintasuna bermatzeko premia neurri buruzko

legeak esaten du 50 langile baino gehiago dituzten enpresetan berdintasun planak txertatu behar direla. Lan ingurune indarkeria matxistari dagokionez, legeak esaten du enpresa guztiek legezko betebeharrak dutela sexu jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena saihesteko lan baldintzak sustatzeko, eta, horretarako, prozedura espezifikoak ezarri behar dituztela; bai jazarpenaren prebentziorako, bai eta jazarpena jasan dutenek egin ditzaketen salaketak edo erreklamazioak bideratzeko ere, eta langileen ordezkariekin negoziatu behar dutela.

Normalean, noiz erabakitzen du enpresa batek urratsa eman eta indarkeria matxistaren aurkako protokoloa egitea?

Esperientziak erakusten digu kasu gehienetan erabakia hartzen dela araudia betetzeko; bigarrenik, gertatutako indarkeria egoeraren bati erantzuteko; eta azken tokian, horren beharraz argi eta garbi konbentziturik.

Zertan oinarritzen da zuen aholkularitza?

Gure zerbitzuek erakundeetan berdintasunerako tresnak diseinatu, ezarri, jarraipena egin eta ebaluatzen dituzte,

hala nola diagnostikoak, berdintasunerako planak edo indarkeria matxistaren aurrean jarduteko protokoloak. Era berean, zuzendaritzari, enpresa batzordeari eta langileei gai horietan prestakuntza ematea edo negoziazio kolektibo berdintasunaren ikuspegitik aztertzea ere bada gure lana.

Ikerketa prozesuak ere lantzen ditugu, erakundeen aholkularitza konfidentzialei kanpoko laguntza emateko, erakunde indarkeria egoera bat agertzen zaienean.

Pentsatzekoa da lan munduan gertatzen diren erasoen parte bat baino ez dela ezagutzen.

Bai, noski. Garrantzitsua da kontuan hartzea indarkeria matxistak emakumeen errealitateak eta gorputzak era askotara zeharkatzen dituela, eta horiek ezagutzea lagungarria dela egoerak hobeto kudeatzeko. Hau da, ez da gauza bera, adibidez, etxeko langile baten bizipena –administrazio egoera irregularrean eta laguntza sarrerik gabe, baliabide ekonomiko eta denbora baliabide eskasekin, baita hizkuntza oztopoekin ere...– edo funtzionario edo zuzendari zuri eta heterosexual baten bizipena.

Europar Batasuneko inkesta baten emaitzek atentzioa ematen dute.

Bai. Galdeketa horren arabera sexu jazarpena ohikoagoa da unibertsitate titulua duten emakumeen eta goi mailako lanbide taldeetako emakumeen artean: goi zuzendaritzako postuetan

dauden emakumeen %75 eta lanbide prestakuntza dutenen %74 sexu jazarpenaren biktima izan dira beren bizitzan zehar. Aldiz, eskulangileak diren emakumeen %44 edo ordaindu gabeko lanetan dabilzanen %41 izan dira indarkeriaren biktima inkesta horren arabera.

Datu horiek bitxiak dira eta horien atzean hainbat arrazoi egon daitezke; batetik, emakume profesionalak gehiago jabetzen dira sexu jazarpena zer den. Eta, bestetik, abusuak jasateko arriskua handiagoa den egoeretan eta lan inguruneetan mugitzen dira.

Alegia, indarkeria adierazpen asko «normalizat» hartzen dira.

Oztopo garrantzitsu bat indarkeria identifikatzea da, nagusi diren gizarte eta kultura balioak islatzen baititu. Kontuan izan behar da indarkeria hori egiturazkoa eta sistemikoa dela, eta gizarteko esparru guztietan eragiten duela, baita lan eremuan ere. Oraindik indarkeria normalizatu asko dago.

Oso garrantzitsua da enpresak berdintasuna eta indarkeriarik gabeko espazio bat sustatzea, eta horretarako behar diren tresnak ematea. Protokolo bat garatzea, langileei informazioa eta prestakuntza ematea berme bat da, laneko egoera horiek gertatzeko aukerak murrizteko. Enpresako kide guztiek ezagutu behar dituzte protokoloa, indarkeriatzat hartzen diren jokabideak eta horiei aurre egiteko eskura dauden baliabideak.

MAKARRALDIA

NOR NI BAINO
PRESTUAGO?

AHOBERO.

KOPETILUN.

BELARRIGOR.

GIBELAUNDI.

... ETA DESIOTAN
NAUZUE ITOGUNE
BILAKATU NAHI DUDAN
IRUÑEA HONETAN
EUSKALDUNEKIN
BEGIRUNEZ
HARREMANTZEKO.
GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN.



* ESPAINOLEZ
JATORRIZKOAN, JAKINA.



EXPRAI

iRRITZIA:

EXPRAI
2020

MUNDUTIK ONDARROARA

Ondarroako portuko murala amaitzeko, herritarren iritzia jakin nahi du Lianek

📁 KULTURA / Xabier Izaga Gonzalez

Ondarroako portuan mural ikusgarri bat egin dute, baina amaitu gabe dago. Lian artista katalanaren azken ideia gauzatu da: "Homage to those lost at sea". Itsasoan galdutako en omenezko artelan erraldoia. Eraikineko hormatzarra betetzen duen itsasoaren erdian, salbagailu bat ageri da, eta murala amaitzeko, egilearentzat lan honetan oso garrantzitsua izango den elementu bat gehitzea falta da: herritarren parte hartzea. Hori jasotzeko, proposamen bi jendarteratu ditu, haien gaineko iritzia artelanean islatuko baititu.

Herritarren iritzia behar du, baina Ondarroan ez ezik, munduan zehar ere parte hartu nahi duten guztiei eskaini die horretarako aukera. Edonola ere, ondarroarrei berariaz helarazi dizkie proposamenak "Udalbarriak" herriko Udalaren hedabidearen bidez, bertan euren iritzia eman dezaten. Eta Lianen proposamenak hasi dira erantzunak jasotzen. Abenduaren 6ra bitartean biltzen dituenak murala amaitzeko baliatuko ditu, horrela ahalik eta jende gehienak parte hartu dezan.


PROPOSAMENAK

Bozeto banatan aurkeztu ditu bere proposamenak, bertan agertzen diren irudi biren gaineko interpretazioa eskatzeko. Dioenez, jendeak ez du bietako bat aukeratu behar, baizik eta irudiok zer iradokitzen dioten eta zer agertzea nahi lukeen esan, baita zergatik ere.

Atxondon bizi da Lian, baina azkenaldian Ondarroan ematen ditu asteko egun gehienak,

Atxondon bizi da Lian, baina Itsas Garraio eta Alturako Arrantzako ikasketak egiten ari da Ondarroan. Han, eraikin bateko horma eskaini zioten eta mural ikusgarri bat egin du itsasoan hildakoen omenez. Amaitu gabe dago, ordea, herritarren iritzia artelanaren elementu garrantzitsua izango baita.

Ondarroako portuko muralaren prozesuko fase bi.
MURALES LIAN



ikasketak direla eta. Herri horretako Portuko Ranpi kultura eta aisia guneko lagunek horma bat eskaini ziotenean bururatu zitzaion herritarrek bere artelanean inplikatzeko. Nahi duena margotzeko esan zioten eta berak pentsatu zuen nahiko lukeela muralak, Ondarroako portuan bertan egonda, itsasoan hildakoak eta desagertutakoak gogortzeko balio izatea.

«Jendeak zer pentsatzen duen jakin nahi dut», dio, «herritarren iritzia jaso, horman zer ikusiko den denon artean erabakitzeko».

Lehenengo proposamenan, Coca-cola botila bat ageri da itsasoaren erdian, eta haren barruan mezu bat. «Elementu horrek desio bati egiten dio erreferentzia, noraez utzitako mezua», azaldu du artista katalanak.

Bigarrenean paperezko itsasontzi bat dago, hori ere itsas olatu artean, eta haren kroskoan Mikel Etxaburu ondarroararen olerki baten pasarte bat irakurgai. «Paperezko itsasontzia izanik», jarraitu du Lianek, «nolabaiteko prekaritatea sumatzen da itsasontzian, baina aldi berean oinarrizko gauzakin zerbait sortu eta horrekin itsasortzeko abilezia ere nabari da».

Lianen instagram kontuaren bidez edo facebooken iruzkin bat utziz parte har daiteke: @muraleslian eta muraleslian, hurrenez hurren.

BERE ARTEA, MUNDUAN ZEHAR

Urte berezi honen hasieran, covid-19aren pandemia baino lehentxoago GAUR8rekin hitz egin zuenean, Kanarietan zegoen artista, ohi bezala mural bat egiten. Azken hila-beteotan, ordea, ez da Euskal Herritik atera, azaldu beha-

**Nahi duena margotzeko esan zioten eta berak
pentsatu zuen nahiko lukeela muralak,
portuan bertan egonda, itsasoan hil eta
desagertu direnak gogoratzeko balio izatea**

**Proposatzen dituen irudi biren gaineko
interpretazioa eskatu du Lianek, jendeak esan
dezala irudiek zer iradokitzen dioten eta
muralean zer agertzea nahiko lukeen**

rrik ez dagoen egoera dela eta.

Lian, funtsean, «*street artist*» bat eta emakumea da. Ameriketako Estatu Batuetan

Mezu bat Coca-cola botila baten barruan, Lianen lehen proposamena. MURALESLIAN



sortu bazen ere, katalantzat du bere burua, Euskal Herrian bizi den katalana da. Gustuko du mugimendu sozialen inguruan mugitzea, horiek baitira bere sorkuntzaren zutabe nagusiak. Mundu osoko bazter ugarritan topa daitezke berak egindako muralak, bere artea mundu osoko horretan zehar barreiatuta.

Leitzako Atekabeltzan marraztu zuen murala munduko ehun onenak hautatzen dituen zerrenda sonatu batean sartu zuten iaz. Australian jakin zuen bere lana sailkapen horretako 46. postuan zegoela, mural bat egiteko

deitu baitzuten, eta bertan urte hasieran izan ziren suteek inguratuta egon zen.

Pandemiaren ondorioz, beraz, mugikortasuna galdu du, munduko edozein kontinentetan lan egiteko bidea ematen zion mugikortasuna, alegia. Hala ere, Ondarroako portuko muralak erakusten duenez, horrek ez du esan nahi geldirik dagoela. Ezta portuko murala margotzeari ekin aurretik ere; izan ere, Ondarroako Arrantza Eskolan goi mailako ikasketak egiten dihardu, Itsas Garraioa eta Alturako Arrantza, hain zuzen.

Goiza, beraz, Arrantza eskolan ematen du, eta arratsaldean ere badu zereginik, euskaltegian, Ondarroan bertan. Ezin esan, gainera, ez duela atarmenturik atera, GAUR8rekin euskaraz jardun baitu hasieratik. Egunero ere horrela saiatzen dela dio.



Bigarren proposamena, paperezko itsasontzia. MURALESLIAN

ESKERRAK
BADAKIGUN
IGERI EGITEN

Ateak asmatu ziren paretak zeharkatzeko, giltzak atek ixteko eta itsasoak, giltzak haraxe botatzeko. Eskerrak badakigun igeri egiten.

Giltzak urpetik berreskuratuzeko, atek zabaldu eta paretak zeharkatzeko, atzera begiratzen dugunean itsasoaz baino ez gogoratzeko.

Mikel Etxaburu
("Zu zara orain txoria"
Elkar, 2011)



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Gabonak

arkitektura / geltokiak / harremanak

3 BEGIRADA:

Akabo. Zerura begira jarri eta Gabonetako argiak ikusten hasi naiz. Izarrak eta ardiak eta lerak eta «zorionak».

Azaroko hego haizearen harroaldia baretu aurretik, Gabonak. Gabonak familia nuklearren eta Disney-bikoteen neurrira diseinatutako burbuila eta talde seguruekin. Gabonak beren turroi eta mazapan zapozeko aldarriekin: «elkar gaitezen» eta «zaindu elkar» eta «eros dezagun». Eros dezagun, batez ere. Eros. “Desioa” Grezia zaharrea. Distantzien eta muxu gabeko musukoen eta tekila usaineko gelen garai berriotan auskalo euskal herrietako zein gune administratibotan konfinatu ote duten hori ere.

Baina heldu dira Gabonak, hemen dira, inoiz baino lehenago, inoiz baino «gabon»-ago. Baten bat ohartuko zen, akaso, ospitaleak gainezka eta tabernak itxita dauden garaiotan ia pornografikoa dela alaitasunaren eta kontsumoaren alde auskalo zenbat voltio martxan jartzea, eta argi behar zuketen izar eta ardi eta lerak eta “zorionak” lotsatuta dabilta etxe-arteetan dilindan, itzalita. Argi ilunduon garaiotan elikagai bankuetara bideratuko dugu gure erosketen zati bat. Bitartean, Infernutik auskalo nora kanporatutako gizon motxiladun batek hiri arrazista garela esan digu. Eta min hartu dugu gure haragi-barruetako zokoren batean. Min eman digu, gure elkartasunaren muin-muinean daukagulako arrazismoa. Ohituta gaudelako gure buruari eta gure inguruari kritika guk egiten, ahotsik gabekoen ahotsa gureganatzen. Baina “kanpotik” “bestea” gu seinala-

tzen hasten denean urguilu ezkuturen bat pitzatzen zaigu. Eta min hori ere arrazismoa da.

Gabonetako argiak zintzilik daude ordea, ihes egin nahiko geniokeen 2020 madarikatu honi zelatan.

Haurrei ikasi genien mundua gugan dagoela; eskuekin begiak estaltzea nahikoa dela ezkutatzeko; denbora ez dela neutroa, hori ere gure baitakoa dela eta «hogeita hiru lo» gelditzen direla Olentzero iristeko. 2020ari ihesean gabiltza, gure bizitzatik ezabatu nahiko genuke alferrik galdutako urte hau. Baina badoa 2020a eta gu ere bai berarekin; sasiak sortutako pitzatuak iaz baino zabalagoak dira asfaltoan, hormetan eta gugan. Urtea geratu nahi genuen

arren munduak aurrera egiten du beti, baita atzera egiten duela dirudienean ere. Ikusi ez ditugun lagunek, ukitu ez ditugun maiteek, goxatu ez ditugun adiskideek eta urrundu zaizkigun gertukoek ere bai.

Norbaiti leporatu nahiko genioke errua; guk gobernuei eta gobernuek guri, adibidez, egiarik gordiena ez onartzeko: mundua gugan zegoela uste genuenok hauts ale bat baino ezdeusagoak garela munduarentzat. Ez dugula gertatuko dena kontrolatzen, gertatuko den horrekin eta horrekiko ahal duguna egitera iristen garela, asko jota. Eta *stand by*-an uste genuen denborak urtebete zahartu gaituela. •



Heldu dira Gabonak, inoiz baino goizago, inoiz baino «gabon»-ago.

Jon URBE | FOKU

{ koaderno } **Joana Garmendia**

Leihorik gabeko gizarte

AEBetako hauteskunderen biharamunetan, Trumpen adierazpenak zuzenean ematen ari ziren hango telebista kate gehienak. Halako batean, hauteskunderen iruzurra izan zela esaten hasi zen Trump eta, derrepentean, emanaldia eten zuten kate horietatik askok. Presidentea gezurra esaten ari zen eta horregatik utzi zioten haren hitzak zabaltzeari, horrelaxe azaldu zuten esatariek. Esango nuke munduaren paraje hauetan pentsaezina egiten zaigula halakorik gertatzea: lehendakaria informazio faltsua zabaltzen ari dela, eta haren adierazpenak eten? Ez dugu sekula horrelakorik ikusi. Eta, badakit, bai, ez daukagula Trumpik guk hemen; “trumposoak”, asko.

Albistegiek informazioa eman behar dutela esango didazue akaso, eta ez dutela informazio horren zuzentasunaz iritzirik izan behar. Lehendakariak esandakoak helarazten dizkigutela, erositako prezioan, eta gu bagarela nor entzundakotik zer sinetsi erabakitzeke. Albistegiek, kazetariak, informatu egin behar dutela, eta informatu soilik. Ez dakit hori posible ere ba ote den. Albistegi batean ezin bil daitezke egun horretan munduan esan diren, gertatu diren guztiak. Nongoak kontatu, nor esandakoak ekarri, zein ordenatan, zein goibururekin: asko dago erabakitzeke esatariek saioa hasterako. Munduari 24 orduko argazkia atera ezin, eta marrazki txikiz jositako collagea erakusten digute. Eta, azkenaldian, tartean-tartean, errieta ere egiten digute.

Zur eta lur geratu naiz joan den asteburuan, hemengo albistegiei begira. Birusak gora egin badu, herritarron zabarkeriagatik izan omen da. Neurri gogorragoak ezarri behar izan omen dituzte, zergatik eta gainerakoan ez dakigulako zentzuz jokatzeko. Tabernetako terrazen irudiak, erru osoa gazteena dela dioten helduen adierazpenak, grafikoak gora eta grafikoak berriro gora. Neurri berriak bete eta egoera

menderatzen ez badugu, itxian jarri beharko omen gaituzte. Esataria errietan ari zitzaidan irudipen erabatekoa neukan. Eta ez naiz ni hasiko neurrien aurka hemen; egoera hau gaindituko badugu herritarrok erantzukizunez jokatu beharko dugu, ez daukat zalantzarik. Baina argazki handiaren marrazki txikiak da hori, komeni diren puskekin egindako collage “trumpati” samarra.

Adibide batek balioko du. Unibertsitatean lan egiten dugunoi mezu bat baino gehiago bidali digute, ikasgelak eta bulegoak egurasteak egundoko garrantzia duela gogoraraziz. Carlos Santamaria eraikinean daukat nik bulegoa. Ezagutuko duzue gehienok, erai ki zen egun santutik haren ataria baitute ekitaldi eta adierazpen ofizialak egiteko tokirik gogokoenetarikoa. Ikusia izango duzue sarrera argitsua, dena kristal. Inoiz ikusiko ez zenutena, seguru asko, barrualdea da. Lehen solairuko bulegoak, adibidez. Bi eratakoak daude: batzuek leiho handi-handiak daukate; ireki ezin diren leiho handi-handiak, esan nahi baita. Besteek ez daukate leihorik. Bai: sei-zortzina ikertzailek egunero hamaika orduz irakurtzen edo idazten lan egiteko prestatu zituzten bulegoen erdiek ez dute leihorik. Eta leihorik gabeko bulego horietan jasotzen ditugu unibertsitatearen emailak, gelak egurastea gure ardura dela gogoraraziz.

Ez zaizkit oraintxe bertan gure lantokiko leihoak gehiegi inporta; baina inporta zaizkit gure eskualdeko ospitale ez-publikoak, lehengoan jarraitzen duten ikasle ratioak, jendez gainezka dabilzan tren eta autobusak, urtetan zaindu ez diren osasun zerbitzuak, haurrak aitona-amonekin utzi beste aukerarik uzten ez digun lan antolamendua. Leihorik gabeko gizarte eraiki digute, eta orain guri eskatzen digute egurasteko, birusak jan ez gaitzan.

Baina albistegietan, bihar ere, dena kristala duen atariaren aurrean erakutsiko dizkigute agintariak, errietan. •

Zur eta lur geratu naiz albistegiei begira. Esataria errietan ari zitzaidan irudipena neukan. Leihorik gabeko gizarte eraiki digute, eta orain guri eskatzen digute egurasteko, birusak jan ez gaitzan

Ez dira ariketa sozial masibo bat egiteko garairik a proposenak, pandemiaren olatu berri baten erdian. Harremanak izateko mugak hor daude, kezka ere bai, baina euskarak ere arnasa behar du hizkuntza hegemonikoen aldeko joera ekarri duen pandemiaren erdian, eta hitz egiten, komunikatzen jarraitzen dugu. Beraz, Kike Amonarrizek komentatzen duenez, gauden egoeran gaudela, praktikan jarri behar da hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa. Eta, gainera, Euskaraldiak are gehiago dakar: ilusioa, herri gogoa, hizkuntza komunitate baten indarra...

GAUR8ko ale hau itxi orduko mahai gainean dauden datuak horren isla dira: 423 herri, 13.000 barne arigune baino gehiago eta 12.300 kanpo arigunetik gora.

Euskaraldiaren saio berri bat martxan, zer dakar berri?

Egoera honetan nabarmentzeko kontu bat da egin egingo dela. Iruditzen zait azpimarratzekoa dela pandemiaren hasieran zailantza batzuk izan genituelako bai erakundeetan eta bai guk Topagunean, eta euskalduntzeko beste eragile batzuekin ere konpartitu genuen kezka hori. Uste dut berehala ikusi genuela ezinbestekoa zela Euskaraldia egitea, besteak beste, bestela euskararen gaia agenda komunikatibo eta soziopolitikotik desagertzeko arriskuan zegoelako, eta alde horretatik iruditzen zait erabaki ona izan zela, Euskaraldia bera egitea ere badela momentu honetan nabarmentzekoa.

Aurtengo berrikuntzarik handiena "ariguneak" izango dira, alegia, lehen edizioan norbana-koengan, herritarrengan, zen-

«Duela bi urte baino udalerrri gehiagotan egongo da Euskaraldia eta hori ere nabarmentzeko datua da bizi dugun garai honetan, arriskua zegoelako kasu batzuetan atzera egiteko eta justu kontrakoa gertatu da»

«Ariguneak dira entitate barruan ohiko harremana duten pertsonen multzoa. Izan daiteke sekzio bat enpresa batean, talde bat kirol elkarte batean, batzorde bat erakunde batean...»



tratu zen ariketa soziala, eta kasu honetan norbanakoekin jarraituko du ariketak baina eraguztietako entitateetara ere zabalduko da eta esan genezake egoera honetan oso pozgarria zaigula 25.000 arigune inguru sortu direla esan behar izatea.

Eta udalerrri gehiagotan.

Bai, duela bi urte baino udalerrri gehiagotan egongo da Euskaraldia eta hori ere nabarmentzeko datua da bizi dugun garai honetan, arriskua zegoelako kasu batzuetan atzera egiteko eta justu kontrakoa gertatu da, duela bi

urte baino udalerrri gehiagok hartuko dute parte, eta beraz horrek esan nahi du finkatzen ari dela, zabaltzen ari dela eta nolabait esateko Euskal Herri osoaren mapa gero eta osatua- goa ikus daitekeela Euskaraldia- rekin, nahiz eta nik uste dudana ez ditugula egitasmo asko Euskal Herri osora iristen direnak, Euskal Herri osoko erakundeak, euskalgintza eta bestelako eragile sozialak bateratu izan dituzte- nak. Iruditzen zait alde horretatik Euskaraldiak lortu duela Euskal Herrian oso-oso gutxitan lortzen den zerbaitekin, Euskal Herri

osoa irudikatzea; Euskal Herri osoak, batera, ilusio berarekin aurrera eramatea horrelako ariketa bat.

Ariguneak, euskaraz hitz egitea bermatzen duten espazio horiek. Nola sortu dira eta nola funtzionatzen dute, zeren badaude barne ariguneak eta kanpo ariguneak.

Ariguneak izango lirateke euskaraz eroso egin daitekeen espazio babestuak. Ariguneak zer dira? Ariguneak dira entitate barruan ohiko harremana duten pertsonen multzoa, izan daiteke



sekzio bat enpresa batean, izan daiteke talde bat kirol elkarte batean, izan daiteke batzorde bat erakunde batean. Arigunea osatzeko baldintzak dira batetik parte hartzen duten guztiek euskara gutxienez ulertzea, gehiengo nabarmenak ariketan parte hartzeko prest egotea eta elkarte horren edo enpresa horretako zuzendaritzak edo arduradunek baimena ematea eta ariketa hori babestea. Horrek esan nahi du hamabost eguneko arigune horietan hizkuntza ohi-turak aldatzeko prozedura martxan jarriko dutela eta bertako

«Ikusi genuen ezinbestekoa zela Euskaraldia egitea, euskararen gaia agenda komunikatibo eta soziopolitikotik desagertzeko arriskuan zegoelako»

KIKE AMONARRIZ

EUSKALTZALEEN TOPAGUNEN LEHENDAKARIA

Euskaraldia pandemian? Mugak daude baina Amonarrizek dioenez, hitz egiten jarraitzen dugu, eta gehiago dago jokoan: beharra, ilusioa, gogoia, konplizitateak...

partaideak ahobizi eta belarri-prest gisa arituko direla.

Iruditzen zait hor sekulako potentzialitatea dagoela hizkuntza ohiturak aldatzeko eta orain arte erdaraz garatzen ziren harremanak euskaraz garatu daitezkeen lortzeko. Oso inportantea izango da ariketa hasi baino lehen egin ez badute, ariketan zehar ere bertako partaideek esplizitatzea, hitz egitea, elkarri kontatzea bakoitzaren helburuak, asmoak, ilusioak, oztopoak, beldurrak... Askotan, ez baldin badugu hizkuntzaz aldatzen, ez badugu jauzi hori egiten da ez diogulako elkarri esplizitatu euskaraz egin nahi diogula elkarri, batzuetan beldurra ematen duelako edo batzuei lotsa ematen dielako.

Iruditzen zait Ariguneek sekulako aukera ematen dutela ezkutu egon daitezkeen arrazoi gorde horiek mahai gainera ateratzeko eta horiei aurre egiteko estrategia bideratzeko, zeren hori lortzen den egunetik aurrera euskarazko ohiko erabilerarako jauziak eginda daude, kontuan izanik Euskal Herrian 25.000 inguru arigune direla, barne ariguneak nahiz kanpo ariguneak. Azken horiek dira bezero, herri-tar edo era guztietako partaideekin harremana duten lanpostuak, eta hor bermatzen bada euskaraz egin daitekeela sekulako jauzia gerta daiteke. Iparraldean sekulako garrantzia eman diote kanpo ariguneei. Horrek Iparraldeko egoera soziolinguistikoa sekulako jauzia ekar dezake euskararen erabilera handitzeari begira.

Non aurkitu ditzakegu ariguneak?

Ariguneak sortu dira Jaurlaritzan edo Diputazioan... baina kultura eta kirol elkarteetan sortu dira batzuk, baita elkarte gastronomiko batzuetan ere; esate

baterako, zuzendaritza talde batzuk arigune bihurtu dira. Hainbat enpresatan sortu dira, sekzio bat arigune bilakatu da; sindikatuetan ere sortu dira, ikastetxeetan agian guraso elkarteak ariguneak sortu du... Era guztietako enpresa, kirol eta kultura elkarteetan sortu dira, eta lehen aldia da figura hori martxan jartzen dugula.

Azken batean ari gara oso-oso izaera ezberdinetako ariguneekin eta uste dut lehen ariketa hau oso aberasgarria izango dela, ikusteko nola garatu den esperientzia leku ezberdinetan, zeintzuk izan diren partaideen bizipenak, lorpenak, oztopoak... eta horren inguruan etorriko dira ikerketak eta ikerketa horietatik abiatuta, aurrerapausoak.

Kanpo ariguneeen kasuan, enpresak bezeroekin euskara hutszko harremanak izateko espazio bat eratzea litzateke?

Kanpo harremanetara bideratzen diren lanpostuetan bermatzen dena da euskara erabili ahal izatea. Eremurik euskaldunenetan kanpo ariguneei jada euskaraz funtzionatzen dute, baina leku erdaldunagoetan kanpo ariguneak izugarritzko garrantzia daukate euskarari bisibilitatea emateko, euskalduneei euskaraz egiteko aukera emateko eta euskararen presentzia sozial hori handitzeko.

Kanpo/barne ariguneeen garrantzia esango nuke batez ere diferentea dela eredu soziolinguistikoen arabera, eta hori lortzen da Euskaraldiak oinarrian duen progresibitatearen ideia horrekin. Horregatik daude bi rol, horregatik batzuk belarri-prest dira eta beste batzuk ahobizi dira, eta leku batzuetan kanpo ariguneeen esparru horiek bermatuta daude eta garrantzia handiagoa eman behar zaie barne ariguneei. Ikusten baldin ba-



«Ikusarazten ari gara zein garrantzitsua den ezagutzaren unibertsalizazioa eta, batez ere, ulerpenarena, denek ulertuz gero hizkuntza arazoak neurri handi batean desagertu egiten direlako»

da barne arigunea sortzea oso zaila dela eremurik erdaldunetan eta aipatuko ditut Baiona ingurua, esate baterako, edo Nafarroako hegoaldea edo Gasteiz eta Arabako hegoaldea, ba kasu horietan kanpo ariguneak sus-tatzea oso-oso garrantzitsua da.

Herritarrekin harremanetan aritzen diren langile horien kanpo ariguneak nola antolatu dira?

Espazio horrek irudi bat izango du eta pertsona horrek txapa eramango du, belarriprest edo ahobizi, eta esaten ari gara hor euskaraz egin behar dutela. Horregatik Iparraldean garrantzi handia eman diote figura horri, zeren askotan ohitura soziala da edozein entitate, eta are ofiziala bada, jada zuzenean frantsesez esatea, eta Hegoaldean leku askotan gertatzen da. Kanpo arigune asko lortuz gero batetik euskarari bisibilitatea ematen ari gara. Ari gara esaten euskara erabili daitekeela uste genuena baino askoz ere leku gehiagotan, euskara erabiltzeko ohitura sozial hori hedatzen ari gara eta kanpo arigune horiek sortu dituzten entitateek ikusten dute, hurrengo urratsa zein da? Ba kanpo ariguneetatik barne ariguneak sortzera bitarteko urratsak ematen hastea eta hurrengo euskaraldiak hor eragingo du.

Aurten ariguneak osatzerik izan ez duten hainbat entitatek ikusi dute bide bat egin beharra daukatela. Horrek denbora behar du, eta horregatik esaten dugu abenduaren 4tik aurrera hasiko garela hirugarren Euskaraldiaren prestaketarekin eta prestaketa horrek entitateetan esan nahi du nola optimizatu daitezkeen dauden aukerak, nola hobetu aukerak, nola hobetu bertako partaide-

en hizkuntzaren ezagutza barne ariguneak sortu ahal izateko. Ariguneen bitartez beste kontu bat bisibilizatzen ari da: zein garrantzitsua den ezagutzaren unibertsalizazioa eta, batez ere, ulerpenaren unibertsalizazioa gutxienez. Esan genezake arigune batean denek ulertuz gero, hizkuntza arazoak neurri handi batean desagertu egiten direla, kasu horretan norberak jada erabil dezakeelako nahi duen hizkuntza.

Lehenengo edizioak izugarriko erantzuna izan zuen kaleetan, baina pandemiaren bigarren olatuaren erdian kale gutxiago izango du Euskaraldiak, nola uste duzu eragingo duela horrek?

Egoerarik optimoena izango litzateke denok kalean ibili ahal

izatea eta erlazio sozialetan mugarik ez izatea, azken batean hizkuntza praktika soziala delako eta Euskaraldiaren ingurune naturala, eta batez ere norbanakoa-ri dagokionez, kalea izango litzatekeelako. Baina covid-19a etorri zaigu eta gauden egoeran gaude, baina gauden egoeran gaudela ere euskaraz egin genezake aurrez aurre, telefonoz, telematikoki, Whatsappez... Orduan, gauden egoeran gaudela ere ahobizi eta belarriprest rolag eraman genitzake aurrera nahiz eta jakin erlazio sozialak mugatuago daudenez gure erlazio kopurua ere mugatuagoa izango dela, baina izango ditugun horietan rolag aplikatu genitzake berdin-berdin. Gaur egun zoritxarrez establezimendu batzuk itxita daude, beste batzuk oso gaizki ari dira pasatzen, badakigu mugak ikaragarriak direla eta arigune bezala

izena eman zuten batzuk ezingo dutela ariketa gauzatu; bueno, gu muga horietaz kontziente gara, baina muga horiek hor egon arren askok bideratu ahal izango dituzte dauden egoeran eta batzuen izango da arigune presentzial bat eta besteena izango da arigune telematikoko bat, baina egoera bat ala beste izan ariketa soziala eraman daiteke aurrera. Uste dut hori ari garela probatzen egun hauetan eta ari garela frogatzen zoriontzekoa dela bene-benetan milaka eta milaka herritar Euskal Herri osoan egiten ari diren ahalegina, oztopo guztien gainetik, ariketa soziala ilusioz eta ahalik eta handien aurrera eramaten.

Pandemiak hizkuntzaren erabileran izan duen eraginaren inguruko kezka agertu dira, batez ere eskola arloan... Covid-



«Konplizitate asko sortzen ditu eta hori inbertsio linguistikoaz gain inbertsio sozial ikaragarria da»

Ariketa sozial horretan, hizkuntzaren erabileraz gain elkarri ulertzeko praktika horretan enpatia dosi handiak daude. Euskaraldiak hizkuntza ohiturei lotutakoak baino emaitza gehiago ditu?

Aurreko edizioaren balorazioa egin zenean askotan ateratzen ziren bi kontzeptu ziren ilusioa eta konplizitatea; jendeak sentitu zuen ilusio bat, ilusio kolektibo bat eta konplizitate bat, sentitu ziren talde baten partaide. Horiek oso emaitza positiboak dira, eta ariguneen kasuan aipatzen nuen bezala, iruditzen zait hemen egiten den inbertsioa ez dela bakarrik hizkuntza biziberritzeari begira baizik eta ona dela ere elkarbizitzari begira eta are gehiago pandemia garai honetan. Uste dut Euskaraldiak adierazten duela bizi nahi bat,

komunitatearekiko atxikimendu bat, elkarren beharra daukagula aurrera ateratzeko.

Hizkuntzaren inguruan ari gara kasu honetan baina uste dut horrek ere islatzen dituela bestelako oihartzun batzuk izan ditzakeela, eta ariguneekin ikusarazi da bertako komertzioarekin lanean ari garela. Bertako komertzioak bat egiten du euskararekin baina gu ere esaten ari gara bertako komertzioan erabili daitekeela hizkuntza, beraz elkarren arteko sinergia eta konplizitate asko ere sortzen ditu Euskaraldiak, eta hori inbertsio linguistikoa izateaz gain inbertsio sozial ikaragarria da.

Badago Euskaraldia bezalako ekimen bat beste edozein hizkuntzatan egingo lukeela dioenik, zer uste duzu?


Korrikak esportatu ditugu, gure hezkuntza sistemaren hainbat esperientzia ere esportatu ditugu eta beste hizkuntza komunitateetatik etorri dira oso interesatuta ikustera hemen zertan ari garen. Euskaraldia ere bada munduko beste hizkuntza gutxitu batzuek aurrera eramateko moduko ariketa soziala. Orain dela gutxi Carmen Junyent soziolinguista katalanak atera du liburu bat: “El futur del català depèn de tu”, eta bertan defendatzen duen tesi nagusiak uste dut guztiz bat egiten duela ariketa sozial honekin. Berak esaten du lehen hitzaren garrantzia zein den, hori masiboki egitearen garrantzia, hizkuntzari eustea... ba horretan ari gara gu hemen Euskaraldiarekin. Beraz, ez dakit noiz, baina ikusiko dugu Euskal Herritik kanpo Euskaraldiren bat.

19ak gure hizkuntza ohituretan eragin du?

Dudarik gabe, egin kontu itxialdiak zer-nolako ondorio kaltegarriak izan dituen hainbat esparrutan, batetik hezkuntzan, haur askok ingurune erdaldunetan eta familia erdaldunetan sei hilabetez ez du praktikan harremanik izan euskararekin eta hori atzerakada ikaragarria da. Eta ikusi dugu ikus-entzunezkoen erabilera ikaragarri biderkatu dela eta haur baina batez ere gazteei zuzendutako eskaintza, esate baterako, oso urria dela euskaraz eta gazteak beste hizkuntzatar joan dira, normalean gaztelaniara edo ingelesera. Covid-19ak horrelako hutsuneak agerian utzi ditu eta areagotu egin ditu hizkuntza hegemonikoen aldeko inertziak esparru askotan.

Euskara zein momentutan ikusten duzu?

Covid-19ak zailtasun erantsi bartzuk ekarri ditu, bestalde iruditzen zait herri gogo bat ere indartu duela egoera zail honetan, ikusi dela badagoela atxikimendu sozial bat hizkuntzaren biziberritzearen inguruan eta esango nuke gaudela momentu batean non aukera handiak ditugun hizkuntza normalizazio prozesuan urrats sendoak emateko. Baina arriskuak ere baditugu aurrerapauso horiek behar bezala eta behar den indarrarekin ematen ez baldin badira, orain arte egindako bidean atzera egiteko. Jarrera positiboa hartzen dut egoerarekiko eta iruditzen zait askotan erakutsi dugun bezala herri honek baduela hizkuntza komunitate zentzu hori eta gure historian zehar askotan gertatu den bezala zailtasunei aurre egin diegula eta lortu dugula aurrera ateratzea. Oraingo honetan ea Euskaldia den horren erakusgarrie-



tako bat ikusarazteko badaukagula oinarri on bat, hizkuntza biziberritzeko prozesuari egoera zail honetan ere bultzada bat emateko.

Euskaraldiaren eraginak neurgarriak dira orain edo epe luzeago batean ikusiko dira?

Lehenengo edizioak erakutsi zizun baduela momentuko eragin handi bat. Ikerketa kualitatiboak eta kuantitatiboak argi erakutsi zuten Euskaraldian zehar euskararen erabilera nabarmen handitu zela. Noski, amaitu eta gero ohiko inertziak itzultzen dira baina iaz egindako ikerketan ikusi zen handik hiru hilabetez egindako aldaketa horietako asko egonkortu egin zirela, beraz hobekuntza nabarmena zen. Hizkuntza ohiturak aldatzeko horrelako prozesuak luzeak dira eta behar dute ez kolpe bat baizik eta kolpe gehiago.

Uste dut Euskaraldi honek, egoera honetan egon arren, lagunduko duela lehenengoan lortutakoa hobetzen eta aurtengo honetan progresio bat egongo dela eta hizkuntza ohituren aldaketan beste urrats bat egingo duela hainbat jendek. Are gehiago ariguneak ere izango ditugu. Nik uste dut hor bi abia-duratan jokatzen dugula. Badago kolpe azkar bat, ariketa soziala masiboa da eta mugatua da eta egun horietan sortzen da giro kolektibo aldeko bat, ilusio kolektibo bat eta horrek asko laguntzen du jende batek ahalegin berezi bat egiteko, ahalegin horrek bere fruituak ematen ditu epe luzean mantentzen direnak, baina beste kolpetxo bat behar da beste jauzi bat egiteko. Iruditzen zait bi epetan izan duela eragin positibo hori. Epe motzean nabarmena da, baina epe luzean ere egonkortzen ari dira hizkuntza ohituren aldaketa horietako asko.

ireki gure leihoa



GAUR8

Munstroa

Haiek ernalduta zuten munstroa eta haiek elikatu zuten, munstroak goserik ez zuen arren, gaitz larri baten lehen sintomak erakusten hasi bazen ere. Eta orain munstroa haiek baino handiagoa denean, indartsuagoa, harekin zer egin ez dakitela daude. Eritasunaren minak arintzeko morfina pixka bat dosifikatu edo dietan jarri. Munstroarekin akabatzea ez da aukera bat, inondik inora, munstroak aberats egin dituelako eta badaezpada komeni delako bizirik mantentzea.

Zerri guztiei ailegatzen zaie beren San Martin eguna eta munstroari ere bere garaia helduko zaiola nago. Eta munstroaren atzetik beste batzuei. Azken urteetan ikusi ditugu Donostian gehiegikeriak, bizilagunen kontrako presioak etxebizitza utz zezaten zein legez kanpoko maniobrak. Dena negoziaren izean. Bidean zer edo, are larriago, nor zapaldu berdin zitzaizela.

Hotelak txurroak bezala, lokalak han eta hemen alokatu/erosi eta taberna kateak egin. Paradoxikoa, baina munstroarentzat tarta handiegia dela tamaltzen

ari dira orain, eta goserik ez duela. SOS dei bat zabaldu dute, tartean negozio gizon jakin batzuek, zuzeneko dirulaguntzak eskatzeko. Justizia poetikoa?

Bitartean, hiria betiko negozioak galtzen ari da. Gure ondarea, gure historia. Alde Zaharreko Estrada espartin denda, kasurako. Bihotza apurtuta eta zalapartarik egin gabe jaisten ari dira halako pertsianak, hamarkadatan apaltasunez eta gogor lan egin ondoren. Non daude zuzeneko laguntzak horientzat? Batzuen duintasuna munstroa baino handiagoa da, besteen lotsa hark irentsi zuen. •

**Oihane Larretxea
de la Granja**

CAF, gero eta estuago

Koldo Sagasti

Urtebete luze pasa da 2019ko abuztuan CAF enpresak Jerusalemgo tranbiaren bigarren lerroa eraikitzeke kontratua esleitu ziotela jakinarazi zuenetik. Ordurako, hamaika eragilek gaitzetsia zuten proiektu polemiko horretan parte hartzeko aukera; lehena, Beasaingo faktoriako langileen batzordea bera. Beharginen ordezkariak hilabete batzuk lehenago kaleratu zuten manifestua zeinean konpainiako zuzendaritzari proiektutik erretiratzeko eskatu eta nazioarteko legedia urratzen duen azpiegituraren eraikuntzan parte ez hartzeko borondatea azaldu zuten. Izan ere, trenbide horrek Jerusalem Ekialdean kokatutako koloniak hirigunearekin

lotu eta azpiegitura iraunkor batez hornituko ditu ilegalki okupatutako eremuak; eta horrek talka egiten du, besteak beste, Genevako Itunarekin.

Urtebete luzean proiektua ezbaian jarri duten mugimendu asko gertatu dira. Sonatuenak Shapir eta Bank Hapoelim konprometitzen ditu, CAFen bazkideak trenbidea eraikiko duen enpresa paratuzergoan. NBEk 2020ko otsailean kaleratu zuen Palestinako okupazioarekin aberasten diren enpresen zerrenda, eta bertan CAFen negozio kideak agertzen dira. Zerrenda datorren otsailean errebisatuko da eta presioak daude Beasaingo konpainia ere bertan ager dadin. Gainera, Euskal Herrian 75 gizarte eragilek baino gehiagok abian jarritako kanpaina mun-

du osora zabaldu da, besteak beste Norvegiara, non konpainia gipuzkoarra kontratu mamitsuak eskuratzeko lehian dabilen. Norvegiako Sindikatuen Konfederazioko zortzi sindikatu nagusiek kanpaina bat hasi dute CAFen aurkako boikota eskatzeko.

Urtebete luzean CAFeko zuzendaritzak ez entzunarena egin die zentzuz jokatu eta nazioarteko legediari men egin diezaion eskatzen dioten ahots guztiei. Euren harropuzkerian inpunitate osoa dutela pentsatu dute, baina zirkulua gero eta estuagoa da haien inguruan. Eta datorren azaroaren 28an horixe gogoraziko diegu Euskal Herri osoan tokian tokiko mobilizazioetan. Oraindik garaiz daudela apartheidaren trenetik jaisteko. •

> «Sarri Sarri» eta Ttutt, duela 35 urte



ARTERPEIRUN

Fermin Muguruzak gogoratu du sareetan: 1985ko azaroaren 18an aurkeztu zuen Kortatuk bere lehen diskoa, Iruñeko Ttutt tabernan. Nork pentsa zezakeen 35 urte geroago hura gogoratzen egongo ginela?



Idazmakina idatzitako gonbidapena jaso zuten kazetariak 1985eko udazken nahasi hartan. Soñua diskoetxetik zertorren, Goñi anaietako batek sinatua: «Mezu honen bidez jakinarazten dizuegu datorren

astelehenean, hilak 18, kontzertu bat egingen dugula Ttutt tabernan (Curia kalea), arratsaldeko bostetan, 'Kortatu' taldearen lehen LPa aurkezteko. Taldearen bideoren bat emanen da eta hiru kideak etorriko dira».

Hiru kideak. Treku (Armen-dariz), Iñigo eta Fermin (Muguruza anaiak), alegia. Nekez pentsatuko zuten orduan aurkezpen hori euskal musikaren historiara pasako zela.

Denborak dena mitiko bilakatu du: taldea, diskoa, zenbait kantu eta Ttutt bera. Fermin Muguruzak urteurrenaren berri eman bezain laster, ugaldtu egin dira Curia kaleko taberna zulo hura gogoratzen duten pasarteak. Muguruzak berak hauxe oroitarazi du:

«@vorable-ko jende on hori!!! TTUTTeko langileak asteburuetan ateratzen ziren kontzertuak grabatzera, eta, gero, tabernako telebista zirkuitu itxian ematen zituzten. Abangoardia hutsa 80ko ikus-entzunezkoetan».

NAIZ+en, Izaro Izuren kronika osoa.



> «50 urte Zientzia eta Teknologia zabaltzen»

EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateak “50 urte Zientzia eta Teknologia zabaltzen” liburu aurkeztu berri du. Fakultatearen 50. urteurrena ospatu zen ikasturtean (2018-19) etxeko ikertzaileek argitaratutako lanak biltzen ditu lanak.

“50 urte Zientzia eta Teknologia zabaltzen” liburuak biltzen dituen 53 artikulua “Cátedra



de Cultura Científica” eta “Zientzia Kaiera” blogetan argitaratutakoak dira. Hainbat ikerketaren berri ematen duten artikulua horietatik 23 euskaraz daude eta 30 gaztelaniaz, eta «zientziako alor guztiak» jorratzen dituzte. Liburuaren helburua egiten den ikerketa erakustea dela nabarmendu du Fernando Plazaola dekanok.



> Txikiekin «etxean euskara goxo bizitzeko» jarduerak

Mintzalasai elkarteak “Asteburu konfinatuak” kanpaina jarri du martxan.

Martxoko konfinamendu gogorrean abian jarritako “Etxean euskaraz” kanpainaren ondoren, Mintzalasai elkarteak “Asteburu konfinatuak” ekimena proposatu du orain. Kanpaina azaroaren 6an abiatu zen eta bereziki haur txikiak dituzten familientzat pentsatuta dago. Eguberriko



oporretara arte, artikulu bat argitaratuko dute ostiralero beren webgunean. Zehaztu duenez, artikulu horretan «lau jarduera simple» proposatuko dituzte «etxean euskara goxo bizitzeko». Marrazki bizidun bat ikusi, errezetak kozinatu, jolasak egin, margotzeko ilustrazioak... Proposamenak askotarikoak eta bi eta hamar urte bitarteko haurrentzat egokituak direla diote.

> «Kantu eskukadak», euskal musikaren omenez

Olrait Studiorekin elkarlanean, Gaztezulok “Kantu eskukadak” ilustrazio eta testu liburua argitaratu du. Lan horrekin, herri bat eraikitzeke kultura funtsezkoa dela azpimarratu nahi dute egileek, baita euskal eszenaren aberastasunari «omenalditxo» bat egin ere. Durangoko Azokako online dendan izango da salgai.

Liburuak ehun euskal talderen ehun abesti ilustratu ditu, eta hortik dator “Kantu eskukadak” izena. Halaber, erakutsi



nahi dute euskaraz eta euskaratik «edozer sor daitekeela» eta «ez dela urrutira joan behar kalitatezko bakarlari eta taldeez gozatu eta estilo ezberdinak dastatzeko».

Musika taldeen zerrendan, Kuraia, Belako, Nogen, Gatibu, Ken Zazpi, Negu Gorriak edota Unidad Alavesa taldeen abestiek batera, besteak beste Txuma Murugarren, Mikel Laboa, Benito Lertxundi eta Joseba Irazoki bakarlarien kantak ere topa daitezke.



> Bulgariar ultra bat, Puigdemonten aurka

Carles Puigdemont, Toni Comin eta Clara Ponsatiren immunitatea kentzeko erreguzko eskaera astelehenean hasi zen. Asteazkenean, txostengilearen irudi batzuk agertu ziren. Haietan, ultras kuindar bat manifestariei eraso egiten ageri zen.

Ultras kuindar horrek Angel Dzhambazki izena du eta Bulgariako talde ultrakontserba-



dore batekoa da, Clara Ponsatik ironiaz esan zuenez, «Voxen oso laguna». Txostengilea da erbesteko katalan liderrei immunitatea kentzeko erreguzkoan. Hura Bulgariako Gobernuaren aurkako manifestariei petardoak botatzen erakutsi duten irudiak zabaldu direnetik, haren izena eta irudia biralizatu egin dira.

**Itziar Elizondo**

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Ari dena da

Hausnarketa eta gozamen iturri dira euskara eta feminismoa txirikordatuak ikusten ditugun bakoitzean gure bizitzen dinamikak aztertzeko. Biak elkartuta sekulako hazi emankorrek eman dizkiote azken urteetan euskal komunitateko pentsamendu zelaiari.

Halaxe izan da, halaber, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Emakundek eta Hizkuntza eta Generoa Batzordeak antolatutako “Euskara eta Feminismoa bidelagun” jardunaldiaren lehenengo bi online saioetan (“Euskaingintza eta feminismoa: bi gorputz elkarrekin dantzan”, Lorea Agirre eta Idurre Eskisabelekin; eta “Ez gara euskaldun jaiotzen, egin egiten gara”, Irene Arrarats eta Lutxo Egiarekin).

Naturalizazioa da botere sistemek emakumeak eta hizkuntza minorizatuak menderatzeko erabiltzen duten estrategia. «Emakumea eta euskalduna modu berean naturalizatzen dira: biak dira bigarren mailakoak, goxoak, biak daude zaintzari eta eremu pribatuari lotuak eta ez politikari, borrokari edo lehiari lotuak» (L. Agirre). Naturalizazio horren atzean dagoen biolentzia estrukturalaren kontra matxinatu dira, praktiketatik eraikiz, identitatearen kategorizazio garaikideak. Horretan euskaldun kontzeptua bera betidanik izan da inklusiboa, euskarara datorrena, euskaraz arituz, euskal komunitateko kide bilakatzen baita. Ez dago, I. Arraratsen iritzirako, kontzeptualizazio modernoagorik klasikoa baino. «Euts diezaiozun adiera horri, bestela hitz hori oparitu diogu beste hizkuntzen ikuspegiari».

Aritzean subjektu bilakatzeko den euskaldun hori, L. Egiaren esanetan, transeuskalduna da, bere hizkuntza jarduera ez-jarraitua baita, «praktika sozialetan hizkuntza baretetik bestera trantsitatzera behartuta dagoelako». Gatazka errotik bizi du euskaldunak egunerokoan, eta hizkuntzarekin hautu kontziente eta inkontzienteak egiten ditu ezinbestean behin eta berriz. Gure gatazka diglosikoan politikoa

da euskaraz aritzea (hizkuntza markatua/emakumea) eta politikoa da gaztelaniaz aritzea (hizkuntza neutroa/gizona/unibertsal faltsua).


«Gatazka izendatzea konponbidea aurkitzeko lehenengo urratsa» denez, I. Eskisabelek denok elkarrekin pentsatzera egin digun gonbitari helduko diot. Euskalduntasun inklusibo horretan askotarikoak dira euskaldunak zentzu askotan. Aktibazioari erreparatzen badiogu, euskaldun “aktibatuek” –gutxitan edo askotan transeuskaldun-gatazka problematizatzen dute, alegia, politizatzen dute. Baina nago euskaldun gehiagok neutraltasun faltsutik (hura ez baita existitzen) bizi dutela gatazka; bere burua “diglosifikatu” balute bezala, egoera makrora egokituz, izan erdaraz hobeto moldatzen den euskalduna, izan euskara lehen hizkuntza duen euskalduna. Berdintasun legala berdintasun materialean gauzatu ez den bezalaxe emakumeen bizitzetan, bertako makineria elebidunak ez ditu euskaldunen eskubideak bermatu. Nekez egingo dugu aurrera euskaldun kategoria eskuzabal, abegikor eta feminista hori hezurramitzen ez bada gure gorputzetan, gure harremanetan, gure lanetan, gure ikasketetan; baina baita gure irakurketetan, irentsarazten diguten publizitatean, ikusten ditugun filmetan, serietan, youtube kanaletan, entzuten ditugun bertso saioetan, musikan eta kontzertuetan ere. Kulturako arigune indartsurik gabe euskaldun oro mutu. “Dun” hori deusez. •



Idurre Eskisabel eta Lorea Agirre. Andoni CANELLADA | FOKU

BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



FUN TSA: ASAS FAMILIA

BENITA ASAS, FEMINISTA AITZINDARIA

Benita Asas Manterola donostiarra 1873an jaio zen. Irakasle ikasketak egin zituen Valladoliden eta Bilbon izan zuen bere lehen irakasle lanpostua, 1897an. Madrilera joan zen, 1902an, irakasle. Madrilgo Ateneoan hainbat eztabaidatan parte hartu zuen, eta sufragio unibertsala aldarrikatu. "El Pensamiento Femenino" (1913-1916) aldizkariaren sortzaile eta zuzendaria izan zen, eta oso maiz kolaboratu zuen "El Mundo Femenino" (1921-1936) aldizkarian artikulugile gisa. Estatu espainoleko feminismoan rol garrantzitsua izan zuen. Halaber, Clara Campoamor, Victoria Kent eta beste militante batzuekin partekatu zituen hainbat elkartetako lehendakari eta sortzaile izan zen. Errepublikan, Izquierda Radical Socialista alderdiko militantea izan zen. Gerra zibila amaitu ondoren, irakasle errepresaliatuetako bat izan zen eta irakaskuntzan jardutea debekatu zioten. Bere azken urteetan Bilbon bizi izan zen. 1968an hil zen 95 urterekin. 1928ko argazki honetan, Benita Asas ageri da, bere ikasleekin.



Mikel Antzak eta Adur Larreak
Euskal Herriaren historiako
gertaera erabakigarrienetako baten
inguruan sortutako **ELEBERRI GRAFIKOA**

Burgos. 1970eko abendua.
Epaile militar frankistek hamasei
etakide epaitu behar dituzte.
Horietako seirentzat heriotza-zigorra
eskatu dute.
Zer egin beraien bizitza salbatzeko?
Nola jakinarazi munduari Euskal Herriak
jasaten duen errepresioa?
Baina ez hori bakarrik...

GARA

GARArekin
hilaren 28 eta 29an,
larunbat eta igandean
kioskoetan

22€

Harpidedunentzako
eskaintza berezia: 20€*

* Erreserbatu zure alea igorri dizugun e-mailari erantzunez.
Etxera eramango dizugu, bidalketa gasturik gabe.

